


LEZO. 4



1.990.ko ekaina

egilea: LEZOKO KULTUR BATZORDEA

babesleak: LEZOKO UNIBERTSITATEKO UDALA

ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

«Kultur Batzordearen» adierazpena

Maiatzaren 7an, Udaletxeko Areto Nagusian, jaiak antolatzeke ospatu genuen Kultur batzordearen bileran, Lezoko Askagintzak honako manifestu hau aurkeztu zigun ontzat har genezan. Aztertu ondoren, bertan ordezkaturik zeuden elkarte guztiek onespina eman zioten, eta Askagintzak honela eskaturik eta Mendekoze Jaiei giro barruan manifestuaren izpiritua ager zedin, manifestua osoki kaleratzea erabaki genuen, honela Lezoko Herriak ezagutu dezan. Baina hitzak hitz, eman diezaiozun segida aipaturiko agiriari.

Drogomenpekotasunik gabeko bizimodu aske baten aldeko manifestua

Historiak erakusten digu zibilizazio bakoitzak zenbait DROGEN kontsumoa egin izan duela.

Drogen kontsumo hori, giza, kultur, jai, erlijio... ohiturei nahiko loturik agertu izan da eta beti ere oreka sozial handiagoko egoeretan.

Gaur egungo zibilizazioan milaka droga daude eta kontsumitzeko ere milaka era desberdinak, baina hau, desoreka sozial handiko egoeretan ematen da, kontsumitzeko erak indibidualistagoak izanik eta ohitura sozial eta kulturekin duten zerikusia txikia delarik.

Baina gure asmoa ez da nostalgikoak ere gerta daitezkeen bata eta bestearen arteko aldeak ikustea, gaur eta Euskadin drogomenpekotasunen fenomenoaz aztertzea baino, eta horrela, beharrezkoak diren erantzunetan konprometuz eta inplikazio maila altuagoak hartzea bideratzea.

Drogen kontsumoa krisialdia jasaten ari den gizarte baten bizi garenen beste seinale bat da, bere balioak eta azpiegiturak kolokan dituen eta sakoneko beraldaketaren beharrea dagoen gizartearena.

Gaur egun eta Euskal Herrian, drogen kontsumoa komunitatea osatzen dugun lagunen aurkako beste eraso tresna bat besterik ez da, ihesbide modu bat, desio ez dugun errealitatek alde egiteko era bat, Askatasun eta Osasun maila handiagoak izango dituen erarketa pertsonal eta kolektiboan konprometuz ez hartzeko bide bat.

Horrexegatik, hain zuzen, funtsezkoena ez da nola eta zein droga hartzen dugun, baizik eta ZERGATIK, ze motibogatik hartu eta eskatzen dugun, osasun eta askatasun maila minimoekin kontrajarriak dauden mailetaraino erabiliz.

DROGOMENPEKOTASUNAK, bere erroak amaigabeko ezberdintasun eta bidegabekerieta murgiltzen dituen fenomeno soziala da.

Drogak, gure gizartean axolagabeki eta inola zigorrik gabe eskatuak eta eskainiak diren sustantziak dira.

Drogomenpekotasunen arazo honek kezkatzen gaituen zenbait pertsona, kolektibo, KOMUNITATEA gara, eta publikoki GURE GAIN HARTZEN DUGU, beti ere gure ahalmenen arabera eta gure iharduera eremuetan, DROGOMENPEKOTASUNEN AURKAKO BORROKAN aktiboki parte hartzeko KONPROMEZUA.

DROGOMENPEKOTASUNIK GABE, BIZIRIK BIZI nahi dugulako honako konprometuzua hartzen dugula adierazten dugu:

1. Drogomenpekotasunen fenomeno sozialaren oinarrian dauden sorburuen aurka borrokatzea, beraien ondorioak apurka desagertuz joateko garantia bakar gisa.

2. Drogen trafikoa eta sustapenaren atzean izkututzen diren interes ekonomiko eta politikoen salaketa.

3. Drogen trafikoaren benetako erantzuleak dituen erreztasunak, konnibentzia maila eta zigorgabetasuna kritikatzeko.

4. Trafikarien aurkako herri presio eta salaketa judizialen alde egitea, beti ere, drogen trafiko sareekiko erantzunkizunetan erizpide kualitatiboak kontutan izanik.

5. «Segurtasun herritarrik eza» eta giza kontrolerako praktikak, neurriak eta jokabideak baztertzea, Askatasunaren aurkako erasoak suposatzen dutenez gero.

6. Kontuan hartzea, Institutioek jartzen dituzten bitarteko eta neurriak eskasak direla Drogomenpekotasunen aurkako borrokan, eta, era berean, gaur egungo legeriak penalizatzaileak diren neurrietan ipintzen duela indarra eta ez prebentiboetan.

7. Droga hartzaileen aurka burutzen diren jokabide, neurri eta praktika penalizatzaileak baztertzea, haien baita dira drogomenpekotasunen arazoa nozitzen dutenak.

8. Drogomenpekotasunen prebentziorako neurri zehatz eta zehazkabeen alde egitea, eta, era berean, drogazaleen berrabiltzeko baliabideak eta komunitatean pertsona aktibo eta kritiko moduan birgizarteratzeko eginkizunetan laguntzea.

9. Prebentziorako dinamika komunitarioaren barnean, lagunkide, aktibo, sortzaile, elkarriketatzailerik, giza, kritikoa, eta ez kontsumitzaileak, ez norberekoak, ez norgehiagokakoak... diren balore, jarrera eta jokabideak bultzatzea.

10. Prebentziorako Partaide gisa gure Herriarentzat Osasun eta Askatasun maila altuagoak lortzeko dinamika komunitarioan parte hartzea, aktiboa izango den konprometuz pertsonal eta kolektiboan oinarrituz.

ASKAGINTZA, 1990ko maiatza

Dos palabras por parte del «Kultur Batzordea»

El día 7 de mayo celebramos una reunión en el Ayuntamiento para elaborar el programa de las fiestas de Pentecostés. En dicha reunión Askagintza de Lezo nos informó sobre el manifiesto que últimamente han sacado y nos pidieron nos posicionásemos públicamente sobre él. Después de su lectura y posterior análisis, las sociedades dieron su aprobación y se propuso su publicación de cara a las fiestas patronales. A continuación publicamos íntegramente el dicho manifiesto haciendo a la vez nuestro su mensaje.

Manifiesto por una vida libre, sin drogodependencias

La Historia nos muestra cómo cada civilización ha consumido distintas DROGAS.

Un consumo de drogas relacionado a costumbres sociales, culturales, festivas, religiosas,... en situaciones de mayor equilibrio social.

La situación en la que nos encontramos en la civilización actual es de existencia de miles de drogas, con miles de formas de consumo, en situaciones de mayores desequilibrios sociales. Formas de consumo más individualistas y menos relacionadas con costumbres culturales y sociales.

Pero no podemos quedarnos en comparaciones que puedan incluso parecer nostálgicas, sino analizar el Fenómeno de las Drogodependencias hoy y en Euskal Herria, para asumir mayores cotas de compromiso e implicación en las respuestas necesarias.

Los consumos de drogas son una demostración más de que nos encontramos en una sociedad en crisis, cuestionada en sus valores, en sus estructuras, una sociedad necesitada de experimentar una profunda transformación.

En la actualidad y en Euskal Herria, el consumo de drogas es un instrumento más de agresión contra las personas y las comunidades que conformamos, una forma más de evasión, de escapar de una realidad no deseada y de no comprometerse en la consecución personal y colectiva de mayores cotas de Salud y de Libertad.

Por todo ello, lo fundamental no es tanto el cómo, el con qué nos drogamos, sino los PORQUÉS de los consumos y demandas de drogas, hasta cotas que están enfrentadas radicalmente a la Salud y a la Libertad.

Las DROGODEPENDENCIAS conforman un Fenómeno Social que hunde sus raíces, sus causas, en un contexto de desigualdades y de injusticias sociales.

Las DROGAS son unas sustancias que son ofertadas impunemente, pero que son también demandadas en nuestra sociedad.

Unas personas, unos colectivos, una comunidad, un Pueblo cuestionados por este Fenómeno de las Drogodependencias y que ASUMIMOS públicamente el COMPROMISO de participar activamente, en base a nuestras propias posibilidades y en los marcos de actuación en los que estamos presentes, en la LUCHA COMUNITARIA contra las CAUSAS de las DROGODEPENDENCIAS.

Porque queremos VIVIR, VIVOS, sin DROGODEPENDENCIAS, manifestamos el compromiso de:

1. Luchar contra las Causas que ocasionan el Fenómeno Social de las Drogodependencias, como única garantía de que puedan ir desapareciendo, progresivamente, sus consecuencias.

2. Denunciar los intereses económicos y políticos que están tras la promoción y el Tráfico de Drogas.

3. Criticar las facilidades, los niveles de connivencias y las cotas de impunidades con los que actúan los verdaderos responsables del Tráfico de Drogas.

4. Apoyar medidas de denuncia judicial y de presión popular contra los Traficantes, en base a criterios cualitativos con respecto a la responsabilidad que tengan en las Redes del Tráfico de Drogas.

5. Rechazar actitudes, medidas y prácticas de control social y de «seguridad ciudadana», por lo que suponen de agresión a la Libertad.

6. Considerar que las medidas y los medios aportados por las Instituciones son insuficientes para la lucha contra las Drogodependencias, así como que la Legislación actual pone el acento en aspectos de tipo penalizador y no preventivo.

7. Rechazar actitudes, medidas y prácticas penalizadoras desarrolladas contra consumidores de drogas, contra personas que sufren el Fenómeno de las Drogodependencias.

8. Apoyar medidas de Prevención específica e inespecífica de las Drogodependencias, de recursos para las tareas de Rehabilitación de drogadictos y de Reintegración en la Comunidad como personas activas y críticas.

9. Promocionar valores, actitudes y prácticas solidarias, activas, creativas, dialogantes, humanas, críticas, no consumistas, no individualistas, no competitivas... en una dinámica comunitaria de Prevención.

10. Participar como Sujetos de Acción Preventiva en una práctica comunitaria de consecución de mayores cotas de Salud y de Libertad para nuestro Pueblo, en base a un compromiso activo, personal y colectivo.

ASKAGINTZA, Mayo 90

AURKIBIDEA



HISTORIA

- 1.— «Korsua, arrisku haundiko iharduera»
Lander Zurutuza 7
- 2.— «Una breve visión histórico-geográfica de Jaizkibel»
Nikolas Albizu 12
- 3.— «Breve historia de Lezo»
Joanes Etxeberriko zenbait ikasle. «*La Universidad de Lezo*» (1985) 16

GIZARTEA

- 1.— «Lezoko Udal Liburutegiari buruzko zenbait datu»
Karlos Etxezurieta — Lezoko liburuzaina— 19
- 2.— «Euskara osasunez nola ote?»
Joxe Juan Ugalde Ordoki 21
- 3.— «Fuego en el Jaizkibel»
Begoña Simon «Egin» 1990ko urtarrilak - 3 23
- 4.— «Zineklubari buruz, haurrei egindako galdera batzuk»
Silvie Szinetar 25
- 5.— «Katrasto berria eta Lezo»
Joseba Presentacion Barandiaran 26

KULTURA

- 1.— «Lezoko Ihauteria»
Joseba Presentacion Barandiaran 29
- 2.— «Tomas Garbizu, lezoar konpositore haundiaren omenez»
Karlo Barrentsoro 34
- 3.— «Gran Fiesta en Lezo»
M^a Elena Arizmendi «*Vascos y trajes*» (II)» (1976) 38
- 4.— «Kalaka aldizkaria»
Zigor Oiartzabal/Izaskun Etxebeste/Mikel Bergara/Xabier Goia 40

SAIOAK

- 1.— «Lezoko armarría, bandera eta koloreak»
Zabarre 43
- 2.— «Urte Berria: El rito del Dios te salve»
Antxon Agirre Sorondo 45
- 3.— «Lezoko deitura ohizkoenak»
Lander Zurutuza 50

LITERATURA

1.— «Sesamos, heriotzari enbido» Mikel Susperregi	53
2.— «Lezoko Itsuaren zorigaiztoko ixtorioa» Karlox Barrentsoro	61
3.— «Etiopia 1992» Aitor Sarasola	64
4.— «Un día como hoy» Aitor Sarasola	66
5.— «Bazterre» eta «Mundutik at» Joseba Agirretxe	69
6.— «Iraeta» Patri Urkizu	70
7.— «Bidaunea Blai» Munttar	71
8.— «Ehiztariari jarritako bertsoak» Martzelino Legorburu «Argiñane»	72
9.— «Ogi gogorrari hagin zorrotz» Xanti Zabala «Lexo»	73

HISTORIA

KORSUA, ARRISKU HANDIKO IHarduera

Sasoi batean lezoar itsasgizonentzat garrantzi handikoa izan zen iHarduera bat aztertzen da lantxo honetan: KORSUA. Hasteko, Enrique Otero Lana historialariari jarraituz, ohar orokor batzu ematen dira korsu ekintzen inguruan. Ondoren, artxiboetako paper zaharrez baliatuz, XVII. mendeko bi korsariuntzien nondik norakoa aipatzen da. Lehena, Hondabarriko «SAN JUSEPH» untzia dugu, Frantzialdean harrapatutako «EL ANGEL GABRIEL»ekin batera Pasaiaiko portuan lehorreratuko zena; bigarrena, oster, zorigaiztoko «NUESTRA SEÑORA DE LA MISERICORDIA Y BUEN VIAJE», Errenteriakoa, etsaiak Ingalaterra parean urperatuko zuena. Jarraian, gaur arte Lezoko korsarietaz jaso ditugun berri urriak argitaratzen dira. Eta azkenik, eranskin gisa, 1718.ean burututako lezoar marinelen zerrenda.

I. HEGO EUSKAL HERRIKO KORSARIAK

Askok bestelakorik uste izan arren, Euskal Herrian korsari asko izan da, bai Hegoaldean eta bai Iparraldean. Korsariak, ordea, ez ziren piratak. Erregearen lizentzia edo patentea behar zuten korsura ibiltzeko eta untzi etsaiak edo gerrako kontrabandoa zeramaten untzi neutralak soilik eraso zitzaizkien. Horrez gainera, beren harrapakinak geroagoko judizio batetan legeztatzen ziren. Piratak, oster, beren kontura eta legez kanpo zebiltzan.

Hego Euskal Herriko korsariak Felipe IV.aren erreinuan (1621-1665) hartu zuten indar handia, korsua Espainiako «Armada»ren arma laguntzaile izatera iritsi zenean. Sasoi hartan, batik bat Bizkaiko Golkoan eta Frantziako kostaldean burutzen zituzten beren ekintzak.

Korsariuntziak ondo armaturik zihoazen eta, gudu taktika abordaia zenez, tripulazio handi batez horniturik. Dena dela, askotan abordaia ez zen beharrezkoa. Korsariuntzi azkarren gehiagotasunaren aurrean merkataluntzi geldiagoak berehala errendatu ohi ziren. Halere, bi edo hiru untziko taldea osatuz gero defentsa kementsu eta eraginkorra eskaini ziezaieketen bakarka zebiltzan korsariei.

1933.ean Koroak «Real Escuadra del Norte» sortu zuen Gipuzkoan, korsua indarberritzearen. Armamenduek partikularren esku jarraitu zuten baina, superintendente bat zela medio, Koroaren kontrolpean. Erakunde berriak gorakada paregabea ekarri zion gure probintziako korsuari, batik bat Donostiakoari, Pasaiaiko portuari esker, eta Hondarribikoari. Horrela, Alonso de Idiaquez superintendentearen esanetan, 1633.etik 1645.era mila harrapakin lortu ziren. (Ikus OTERO LANA, E.: «Los corsarios españoles. Apogeo del corso peninsular en el reinado de Felipe IV», «Historia 16» en, 147 zenbakia, 1988, 29-36 orrialdeak).

II. «SAN JUSEPH» EKO GABRIEL DE GOIKOETXEA KAPITAINAREN HARRAPAKINA

Epe motzean lor zitezkeen irabazi handiek bultzatzen zuten untzijabea bere untziak korsura armatzera. Marinelek ere gogo onez hartzen zuten beren gain untzi horiek tripulatzera, ete-

kinik txikiena berea izango zela jakin arren. Nolabaiteko erakarpen horrek bultzatu zuen Hondarribiko «San Juaseph» untzia harrapakina bilatzera.

«San Juseph» untzi hori 1648.eko azaroaren azken aldera itsasoratu zen, korsurako lizentzia jaso eta tramitezko fidantzak ordaindu bezain laster. Untzijabea TOMAS DE ARSU hondarribiarra zen Donostiako ANTONIO DE BEROIZekin batera. Enrique Otero Lana historialariaren esanetan, azken honek berrogei urtetik gora eman zituen korsuan, kasu honetan bezala beste untzijabe garrantzitsuekin elkartuz, denbora horretan hirurogei untzi inguru armatu zituelarik. Baina dirua untzijabeek aurreratzen bazuten ere, adorea tripulazioen esku zegoen beti. Itsasaldi honetan GABRIEL DE GOIKOETXEA hondarribiarra zen «San Juseph»eko tripulazioaren kapitain. Marinel haiek argi eta garbi zuten egin beharrekoa: Espainiako Koroaren etsaia zenaren aitzakipean edozein untziaz indarrean jabetu. Eta baita egin ere! Asmo honekin Frantziako uretan zebiltzala erresuma hartako lagunez hornitutako «El Angel Gabriel» izeneko filibotea erasotu zuten, urte bereko abenduaren 5ean bere ardo kargamendu osoarekin Donostiako kaira preso ekartzearaino.

Harrapakina ez zen edonolakoa. Untziko agintari gorena Calais hiriko ABRAHAM BULLON maisua zen. «El Angel Gabriel» holandar tankerakoa zen, eta jakin badakigu une horretan Holandako untzigintzetatik ateratzen zirela munduko untzirik aurreratuenak. Edukierari zegokionez 120 tona har zitzakeen gutxigorabehera. Zeraman kargamendua Frantziako ardo txuri eta gorria zen, 100 tona guztira.

Horrelakoetan ohizkoa zen legez prozesua egin zen harrapakina justifikatzearren. «El Angel Gabriel»i egindako erasoa ontzat eman zuen epaiak, bere ordurarteko jabeen esku-bideak bertan behera utziaz. Untzia eta kargamendu osoa subasta publikoan saltzea baino ez zen falta irabaziak untzijabe, kapitain eta marinelen artean banatzeko. Subasta Pasaiaiko portuan egin zen. Untzia lehen aipatutako TOMAS DE ARSU untzi jabeak erosi zuen, zilarrezko 9.000 errealetan; ardoa Donostiako JUANES DE CASTRO merkataria, zilarrezko 15.400 errealetan, tona bakoitzeko 154 erreal ordaindu zituelarik. Guztira zilarrezko 24.400 errealetako dirutza eman zuen Gabriel de Goikoetxea kapitainaren harrapakinak.

«El Angel Gabriel»en gorabeherak, ordea, ez dira hemen bukatzen. Paper zaharrek argi berririk azaltzen dute subastaz geroztikako untziaren nondik norakoaz. Tomas de Arsu bere jabe berriak Hondarribiko portura eramane balenketarako egokitu asmoz. Beste mol-daketa batzuren artean bigarren zubia jarri zion, untzia gainalde bakarrekoa baitzen. Horrela, 1649.eko martxoaren erdi aldera «El Angel Gabriel» prest zegoen berriro itsasoratzeko, bere defentsarako beharrezko artilleria guztiarekin. Tomas de Arsuk bere anai SAN JUAN DE ETXEONDO izendatu zuen kapitain berri, untziaren gain ahalmen guztiak ematen zizkiolarik. Itsasketa berri honek Noruega eta beste alderdietako baleak zituen helburu nagusizat, untziaren funtzioak hirugarren sektoretik lehendarrerainoko bilakaera adierazgarria esperimentatzen zuelarik.

Bestalde, «El Angel Gabriel»en betebeharrak berria alde batera utzirik, aipatzea komeni da kasu honetan bezala Lezoko itsasgizonen munduan ere korsua eta bale «arrantzaren» artean lotura zorrotzak agertzen zirela. Horrela, 1718.eko marinela zerrendan datzanez, korsari izandako lagunak inoiz balenketan ibiliak ziren. Hau, ordea, ez da batere harrigarria, euskal marinela asko iparreko ur hotzetan gogortzen baitzen.

III. «NUESTRA SEÑORA DE LA MISERICORDIA Y BUEN VIAJE» REN AZKEN ITSASALDIA

Korsuak berehala aberasteko modu egokia eskaintzen zuen arren arrisku handiak zekartzan. Iharduera hau XVII. mendeko arriskutsuenetakoa zen gerrarekin batera. Horrela, itsasaldi bakoitzak berarekin porrotaren mehatxua zeraman, itsasoan galdutako korsariuntziak asko izan zirelarik. Errenteriako «Nuestra Señora de la Misericordia y Buen Viaje» zorigaiztoko

untzi horietako bat izan zen.

Berrogei tona har zitzakeen untzi hura 1633.ean itsasoratu zen azken aldiz. Pasaiaiko portutik irten zen, SEBASTIAN DE ETXEBERRIA pasaiatarra kapitain zuelarik; untzijabea Erreterriako DOMINGO DE BERROTARAN zen. Diego de Zubieta erreteriar untzijabearen esanetan, garai hartan mila dukatetik gora kostatzen zen antzeko untzi bat korsura armatzea. «Nuestra Señora de la Misericordia» ko marinelen helburua ohizkoa zen: harrapakina lortzearen iparraldera jo, Frantziako kostetatik gertu. Gauzak horrela, egun gutxitara mairuz hornitutako piratauntzi batekin egin zuten topo Ingalaterrako Kanalean. Burrukatu ondoren, ordea, «Nuestra Señora de la Misericordia» urpean galdu zen betiko. Nahasmen hartan, igerika mairuen untzira iristea lortu zutenak preso eramanak izan ziren Berberriako kostara, Sale hirira, Rabatetik gertu.



Sale, Antonio Dominguez Ortiz historialariak dionez, 1610.ean Extremadura eta Andaluziatik egotzitako moriskoek eratutako errepublika piratiko ia independente bat zen. «Nuestra Señora de la Misericordia» tik bizirik ateratakoek denbora asko eman zuten han. Horrela, sei urte beranduago, untziko kapitaina eta zenbait marinela erreskatatuta etorri ziren beren herrietara: SEBASTIAN DE ETXEBERRIA Pasaia, MIGUEL DE MARKUELAIN eta MARTIN DE LABAYEN Erreterriara eta GREGORIO DE ARBURU Oiartzunera. Beste batzu, ordea, ihesari eman ondoren itzuli ziren.

Garaiko lezoar boteretsu baten berri dakarten paper zahar batzu, bestalde, Berberriako kristau gatibu baten erreskateaz mintzo dira. Haundiki hori, Lezoko parrokian bere kontura kapera eraiki zuen JUAN NUÑEZ DE YEROBI kapitaina zen, Sevillan urteetan bizitutakoa. Beronek, 3.000 eta gehiago errealetan, Pasaiaiko FRANCISCO DE AMEZKETA erreskatatu zuen, Argel-en gatibu zegoelarik. Dena dela, zenbatekoa, aberastasunaren arabera, differentea izango zen kasu bakoitzean.

«Nuestra Señora de la Misericordia» ren ezbeharrari dagokionez, berau 1633.ean gertatu zen arren, zortzi urte beranduago DOMINGO DE BERROTARAN untzijabea «Junta Real de Armadas» zelakoari indemnizazio eske zebilen, zorte handirik gabe.

IV. KORSUAN HILDAKO LEZOARRAK

Gaur arte lezoar korsariei buruzko berriak tantaka iritsi zaizkigu, aipamen bat edo beste eta akabo. Esate baterako badakigu LEON DE IRIBERRI inoiz korsura ibili zela. Berau beste hiru lezoarrekin batera itsasoan galdu zen 1662.ean, Cadizerako bidean zihoazelarik. Bestalde, 1718.eko marinela zerrenda FRANCISCO DE ARRILLAGA, MIGUEL DE ELIZONDO eta FRANCISCO DE ETXEBESTE korsarietaz mintzo da.

Sakramentu liburuetakoa heriotzagiriekin, dena dela, Lezoko korsuaren pasarte tragikoaren berri dakarte, iharduera honetan hildakoen izenak. Aipamen guzti horiek bilduz korsuan hildako lezoarren zerrenda osatu dugu. Berau irakurtzerakoan, ordea, kontutan izan behar da Lezoko heriotzagiri zaharrena 1638.ekoa dela eta apaizek askotan ez zutela zehazten heriotzaren zergatia; korsuan bizia galdu zutenen kopurua zabalagoa izango zen seguraski.

B 1641-V-7	ROQUE DE IRIBERRI
B 1641-X-29	JOANES DE IRIGOYEN
1643-X-7	JOAN DE ITURBE
1644-1-29	SAN JOAN DE TORRE
1644-1-29	MIGUEL DE MIURA
1644-1-30	DOMINGO DE ALFARO
1644-IV-23	LEON DE OLLO
1644-VI-2	MIGUEL DE LARGO
B 1647-VIII01	JOANES DE ARRILLAGA menor
B 1651-IX-14	FRANCISCO DE KAREAGA
B 1658-IV-9	JUAN DE BERAIZ
B 1658-IX-11	LUCAS DE ELORRIAGA
1663-VI-20	MARTIN SANZ DE ETXEBERRIA
1692-X-1	SEBASTIAN DE LARGO
1693—IV-28	DOMINGO DE ETXEGARAY

Alboan «be» majuskula daramaten datek Lezon heriotzaren berri izan zeneko eguna adierazten dute, besteek heriotzaren eguna bera.

V. DOKUMENTUA

NOMINA Y LISTA DE LOS MARINEROS, CAPITANES Y PILOTOS NATURALES Y VECINOS DE LA UNIVERSIDAD DE LEZO, HECHA POR LOS SEÑORES CAPITULARES DE LA MISMA, EN EJECUCION Y CUMPLIMIENTO DE LA ORDEN DE SU MAJESTAD Y DESPACHO EN SU RAZON EXPEDIDO POR LA PROVINCIA DE GUIPUZCOA (LEZO, 16 DE ENERO DE 1718)

(...) Primeramente se nominó y alistó el señor regidor Francisco de Arrillaga, por haber navegado por tal marinerio en diferentes bajeles que han salido en servicio de Su Majestad al corso y también en distintos que han salido de diez y seis años a esta parte a la pesquería de ballenas y otras partes, y el dicho señor regidor dijo ser de edad de treinta y siete años poco más o menos.

Rafael de Olavide, de oficio marinerio y artillero, que ha navegado en los bajeles de Su Majestad al socorro que se hizo de Barcelona y otras partes en distintos bajeles, de edad que dijo ser de treinta años.

Miguel de Alza, marinerio y artillero, que ha navegado en bajeles de Su Majestad para el dicho socorro de Barcelona y en los de los particulares al puerto de Cádiz y otras partes en repetidas ocasiones, y declaró ser de edad de treinta y dos años poco más o menos.

Miguel de Elizondo, marinerio, que ha navegado en servicio de Su Majestad al corso en diferentes ocasiones y embarcaciones y también a la dicha pesquería de ballenas, de edad que dijo ser de treinta años.

Francisco de Echeveste, marinerio, que ha navegado en el dicho servicio de Su Majestad con el oficio de veedor al corso y a la pesquería de ballenas con el cargo de condestable, que dijo ser de edad de treinta y seis años.

Ausentes

El capitán y piloto Jorge de Echeverría, natural de esta dicha Universidad, de edad de treinta y cuatro años, que actualmente se halla en la carrera de Indias.

El capitán y piloto Sebastián de Arbelaiz, que según la noticia que se tiene se halla actualmente en la ciudad de Cádiz de vuelta de viaje que ha hecho de Veracruz en el bajel nombrado «La Armiñona», de edad de cincuenta y cuatro años.

Antonio de Echeverría, que se halla embarcado en servicio de Su Majestad con el cargo de tercer capitán en el bajel nombrado «San Phelipe», de edad de cincuenta y ocho años.

Y el piloto Pedro de Aurela, que actualmente se halla embarcado en uno de los navíos del cargo de Don Andrés Martínez de Murguía, que salieron para Buenos Aires. (...)



(Lezoko Udal Artxiboa: E-6-1-1)

ERABILITAKO ITURRIAK

1. GIPUZKOAKO PROTOKOLOEN ARTXIBO HISTORIKOA, Oñati.
2. ELIZBARRUTIKO ARTXIBO HISTORIKOA, Donostia.
3. LEZOKO UDAL ARTXIBOA.

LANDER ZURUTUZA
(Argazkiak: Imanol Zurutuza)


UNA BREVE VISION HISTORICO- GEOGRAFICA DE JAIZKIBEL

Introducción

Jaizkibel, es el monte que siempre ha estado junto a nuestra localidad. Esta cercanía ha motivado, que escriba un artículo sobre el mismo.

Teniendo en cuenta la escasez de material disponible, este estudio ha sido confeccionado consultando una amplia bibliografía.

La aportación de este escrito, es el presentar el promontorio bajo una visión histórico-geográfica. La parte histórica, esta tratada, unicamente hasta la Edad Antigua.



El significado del nombre del monte Jaizkibel

Todo nombre, esta relacionado con los presupuetos del pueblo que lo creó. En muchos pueblos, los nombres de personas, lugares geográficos y objetos, hacen referencia a lugares donde se originaron, o a características de individuos o de objetos.

El nombre de Jaizkibel, no tiene por que ser una excepción. Partiendo de esta base, el nombre de Jaizkibel, lo he extraído del libro de un filólogo vasco, Nicanor Narbarte. El título de libro es «Diccionario de apellidos vascos». Según Narbarte, Jaizkibel significa, «Detrás del Peñón».

La palabra Jaizkibel o Aizkibel, estaría compuesta por dos palabras: Jaiz o Aiz, que significan peñón y Kibel, que significa detrás. Esta denominación sería congruente, con el carácter de lengua aglutinante, que tiene el euskera. Las lenguas aglutinantes, son aquellas que se forman a partir de la unión de palabras preexistentes. De ser ello cierto el nombre nos indicaría, que los responsables de la nominalización, tomaron como referencia un peñón.

La palabra peñón, se referiría a algún monte o montes que por su singularidad, constituyo/yeron el centro de la cosmogonía de la tribu que solía transitar a lo largo del septentrion navarro y del valle de Oyarzun. Dicha tribu y más concretamente un clan perteneciente a la misma fue el grupo que nominalizó a Jaizkibel.

La geomorfología de Jaizkibel

La geomorfología es la parte de la geografía que estudia el origen de la Tierra, su composición y evolución.

Jaizkibel forma parte de la cordillera de los Pirineros, cuyo origen data de hace treinta y

siete millones de años.

El monte que nos ocupa, como muchos montes del entorno, con su misma composición, tienen su origen en una anomalía surgida mientras se formaban los Pirineos. Dicha anomalía de un carácter original, a los Pirineos, dentro del tipo de cordilleras a que pertenece.

Jaizkibel, forma parte, de los montes que se encuentran en la zona anómala de los Pirineos. La anomalía queda expresada; por la formación flysch, la cual aparece en las cordilleras tipo Himalayas y Alpes, y no en las de tipo Pirineos.

Jaizkibel, esta compuesto por Flysch y arenisca. Las areniscas se encuentran en la costa, formando acantilados. Mientras los flysch se hallan en las demás zonas del monte, donde configuran un relieve informe que recuerda a la forma singular de los montes de los Altos Alpes. Los flysch, se componen de una serie de estratos donde se alternan diferentes rocas: calizas, arenas, areniscas y margas.

La edafología de Jaizkibel

La edafología, es la parte de la geografía que estudia la naturaleza de los suelos.

En Jaizkibel encontramos la tierra parda húmeda. Este suelo, es rico en humus, y por ello bueno para la vegetación. Pero debido a la tala y quema indiscriminada de los árboles naturales, ha sido profundamente alterado.

La vegetación de Jaizkibel

La vegetación y el suelo, estan profundamente relacionados entre sí. Ambos, dependen del clima, latitud, altitud y relieve, y en función de ellos serán de un tipo u otro.

Las especies arboreas, naturales de Jaizkibel, eran la haya, los castaños, y sobre todo el roble tozo.

La degradación del roble tozo, conlleva la aparición del matorral. Dicha degradación en Jaizkibel se dio en gran parte por intereses industriales, por lo cual se talaron árboles naturales y fueron sustituidos por los pinos. Los cuales, son buenos para actividades industriales. En cambio, para el ecosistema nefastos. Los pinos, al no aportar suficiente humus, va empobreciendo el suelo, y acaban por transformarlo. Aunque también hay que recordar los irreparables daños ocasionados, por un número sin fin de incendios.

El poblamiento de Jaizkibel

Las primeras referencias directas, a la existencia de habitantes en Jaizkibel, se remonta, a dos mil quinientos años antes de Cristo. Fecha esta, que se considera el origen del hombre vasco, como hombre perteneciente a una colectividad humana diferenciada de las colectividades vecinas. Dichas referencias directas, vienen dadas por construcciones megalíticas que se encuentran en Jaizkibel.

Estas construcciones son tres dolmenes y dos agrupaciones de cromlechs. Los primeros son lugares de enterramiento, y los segundos son la construcción donde probablemente, se celebraban los cultos y ritos religiosos.

La posibilidad de que existieran grupos humanos, antes del año dos mil quinientos antes de Cristo, viene secundada por un dato indirecto; los hallazgos que fueron realizados, en las cuevas de Aitzbitarte (Rentería). En este lugar, se encontraron instrumentos con decoración geométrica (líneas transversales, oblicuas, longitudinales, circulares o combinaciones de dichas líneas), de hace veinte mil años. Partiendo de ello, se puede aceptar que en la misma época, hubiera algún pequeño grupo de individuos, en Jaizkibel.



Respecto a los motivos geométricos, hay que decir que prácticamente no se repiten. Lo cual significa que no obedece a ningún alfabeto, ni a ninguna manifestación cultural. Sería una manera de pasar el tiempo libre. Aunque hay que señalar que puede obedecer a otro tipo de cultura, más pluralista que la actual, y muy cambiante. Incluso podía ser una cultura hoy inconcebible para nosotros. Es probable que la cultura paleolítica vasca, como otras culturas coetáneas y continentales, obedecieran a estructuras mentales muy diferentes a las del hombre occidental del siglo XX. Y ello se tiene muy poco en cuenta en los análisis históricos de épocas precedentes.

El grupo que construyó los monumentos megalíticos, fue posiblemente un clan de la tribu de los vascones. Su punto original, hay que hallarlo en el Macizo de Cinco Villas (en torno a Lesaca y Vera). De el mismo partía hacia el valle de Oyarzun, una fracción del citado clan, y tras transhumar volvían a Cinco Villas. El punto a partir del cual regresaban, hay que situarlo en Jaizkibel, aunque cabe la posibilidad de que hubiera más puntos al respecto. Y también como probabilidad, cabe reconstruir la ruta o rutas transhumantes a partir de las construcciones megalíticas del valle que pertenecemos.

Las características del clan citado serían las siguientes:

— Es un clan de pastores transhumantes, que se alimentaban fundamentalmente de bellotas, y de otros frutos naturales recogidos en la naturaleza. También hay que «dejar la puerta abierta», al hecho de la posible existencia de pequeñas extensiones cultivadas por las mujeres.

— Este clan estaba «gobernado» por un jefe cuya preponderancia basaba en pertenecer a la familia más antigua e importante. «Las relaciones sociales» estaban enraizadas o fundamentadas en el parentesco. Hay que indicar que el linaje no es el único medio de alcanzar el liderazgo. Las cualidades y aptitudes personales juegan una baza fundamental. En una época donde el raciocinio emergía, los individuos que sobresalían por su mayor capacidad de análisis y síntesis, pronto alcanzaban un «status privilegiado» dentro del clan.

— Las mujeres juegan un papel fundamental. Son las propietarias de los bienes inmuebles, e incluso muebles. Las féminas tenían capacidad de decisión en muchos ámbitos de la vida

del grupo.

— Respecto a la mitología hay que decir que en Jaizkibel se celebraban akelarres. Esta era una celebración, en la que se pedía a aker, el macho cabrio, una año fértil. Este núnmen tenía facultades curativos respecto a los animales que eran encomendados a su protección. Con la llegada del cristianismo, a este genio se le llama akerbeltz, considerándosele el diablo. Otras deidades eran la luna, Ostri y Donibane. Ostri, era el dios del cielo, y Donibane (San Juan) el dios del sol. Este tiene como símbolo la cruz svástica o lauburu.

Conclusión

Realizar un artículo sobre Jaizkibel es difícil, porque no hay monografías al respecto.

Sí ya resulta difícil encontrar información sobre aspectos físicos de nuestro monte, es aún más complicado hallar información sobre el apartado de poblamiento. El contenido de la misma no está extraída de libros que se circunscriben al lugar tratado. Ha sido forzoso hacer extensivo algunas de las pocas nociones que se refieren al tema de los indígenas de el País Vasco, en la Edad Antigua. Además que se tiene poca información al respecto, hay que añadir que la población es mínima.

Aún y todo espero que haya servido este artículo para que se conozca un poco más al cercano pero desconocido Jaizkibel.

Nikolas Albizu

«BREVE HISTORIA DE LEZO»



Los datos más antiguos que tenemos sobre Lezo, corresponden a una casa solar, situada junto a la Párrroquia llamada Lezoandia. En 1203, Alfonso VIII concedió a Fuenterrabía, su súbdito, Guillermo de Lazón, el dueño de Lezoandia y sus caseríos. Este tal Guillermo de Lazón tenía emplazada su casa en el actual Parque Marquesán, quien debió formar el originario núcleo de esta Universidad.

A pesar de tener que depender de Fuenterrabía, tenía una administración económica particular, un alcalde pedáneo, un regidor cabo y dos fieles o coperos. Militarmente también dependía de Fuenterrabía, gozó del fuero de San Sebastián, desde 1203, por ser jurisdicción de Fuenterrabía, a quién se le había concedido, como ya dijimos, Alfonso VIII.

Durante los siglos del comienzo de la Edad Moderna, los siglos XV y XVI, estuvo muy unida a Pasajes de San Juan, con quien compartía la misma moneda,

iglesia, cabildo, hospital, asilo y las tierras y pastos de Jaizkibel.

A mediados del siglo XVII, en el año 1643, se separó de ésta.

La separación total de Fuenterrabía fue después de las cortes de Cádiz, en 1816.

En el siglo XVI, aproximadamente, éstos eran los límites de Lezo:

Por el este llegaba hasta el término que llamaban Gainzuruzketa (actualmente Gaintzurisketa), y una legua más.

Por el oeste había un barrio, llamado Bizkaia, que estaba al lado de Pasaje (actualmente Pasajes), este barrio era de Lezo.

Por el norte llegaba hasta la sierra de Jaizkibel y hasta el mar y por el sur toda la cuesta de Darieta hasta Ugarriza de Rentería. En la bajada de aquella parte, había una escalera de piedra, muy larga, que hicieron los de Lezo. Esta escalera tenía doscientos dieciséis escalones de ocho pies de ancho cada uno. Algunas veces subían y bajaban, por esta escalera, jinetes a caballo.

Lezo, tenía por privilegio, dado por Carlos V, no quitar la carga a ningún navío que estuviera en Lezo, por pequeño que éste fuera, aunque los dueños de las navíos más grandes podrían apoderarse de los más pequeños, llevándolos a Andalucía y a otros lugares.

Por esto las otras villas querían avecindarse en Lezo.

Este privilegio lo ganó por pleito la villa de Fuenterrabía, por ser Lezo de su vecindad desde 1203.

Además de este privilegio antes nombrado, también tuvo libertad de cargar y descargar cualquier mercancía, cosa que otros lugares no tenían. Esta condición de puerto marino y cercanía a la frontera, hizo que ocuparan Lezo los franceses, en los años 1476 y 1638, y los ingleses en el siglo XVIII.

En Lezo, se hicieron por mandato de Felipe II, los astilleros reales, en el puerto que llamaron Port de Borda. Lo hicieron ahí porque era un sitio muy cómodo para botar barcos, era arenoso y se solían recoger algas.

Se comenzaron las obras de su construcción en el año 1597. Edificaron dos casas anchas y espaciosas que llamaban magazines. Los utilizaban para vivir y guardar material de la fábrica. Enfrente también se hizo una ermita en honor de Santa María Magdalena, para dar misa a la gente de la fábrica.

Era notable una cordelería a un lado del astillero, todo a cubierto de tejado, y tan larga para poder meter los cables y marotas, con receptáculos para guardar el cáñamo. En ésta se labraba y se alquitranaba la jarcia, cables, cablotes, guindaresas y otros géneros necesarios para el aparejo de los navíos y de los galeones, de los cuales se fabricaron muchos, y el más famoso fue el galeón nombrado Nuestra Señora del Pilar y Santiago, que fue capitana Real de la armada del mar Océano.

Se fabricó en los astilleros de Lezos, siendo el maestro principal Juan de Beas de Sevilla, en el año 1609, siendo superintendente el mismo coronel Idiaquez y tenedor, Onofre de Isasti (hermano de Lope de Isasti). Era de extraña grandeza, y muy fortificada, de porte de 1200 toneladas, porque tenía de puntal diez codos y medio (medida usada antiguamente), de eslora sesenta y siete codos y de quilla cincuenta y dos. El rey Felipe II, visitó el barco (Nuestra Señora del Pilar) cuando estuvieron en Lisboa.

Por este lugar pasó el emperador Carlos V, cuando iba a Gante, en aquel año 1540, recibéndole el pueblo con gran amor y humildad. Aquel día la marea subió más que de costumbre, por lo que desembarcó su majestad más arriba del muelle y pasando a Fuenterrabía, le fue sirviendo el bachiller Juan Martínez de Lezo, tío de Lope de Isasti, rector de Lezo y de Pasage (Pasajes) en aquella época.

Por ser querido y conocido de su Majestad, le trató familiarmente y le hizo volver de la mitad del camino.


Se hallaban en el siglo XVI en el territorio de Lezo quince casas solariegas antiguas, y una torre de buen edificio, a la cual le llamaban «el palacio».

A ésta solían ir a posar los obispos que iban de visita. Aquí se aposentó don Cristóbal de Roxas, arzobispo que vino de Sevilla cuando iba al concilio de Trento.

En el concilio de Trento se reunieron los obispos para hablar de cuestiones religiosas. El concilio de Trento tuvo lugar entre los años 1545 y 1563 para hablar de las modalidades, de la restuaración eclesiástica, después del cisma luterano; doctrina sobre el pecado original, los sacramentos, la gracia, las indulgencias, cuestiones de disciplinas y ordenamiento litúrgico y decreto para la fundación de los seminarios. Don Cristóbal de Roxas fue en el año 1552 y los pontífices eran Paulo III, Julio III y Pio IV.

Guerras carlistas

Como el resto del País Vasco, Lezo estuvo inmersa en los problemas y conflictos que se ocasionaron por las pérdidas de los Fueros.



De toda la comarca salieron numerosos voluntarios carlistas

Se conoce la existencia de un jefe de compañía o pelotón que era natural de Lezo, llamado Olara. Este personaje participó en las partidas del Cura de Santa Cruz que andaban por Guipúzcoa, sobre todo en la zona de Peñas de Aya.

Guerra Civil

Otra guerra que también afectó a Lezo fue la guerra civil que duró desde 1936 hasta 1938.

El 18 de julio de 1936 los militares sublevados contra la 2 República triunfaron en Navarra gracias a los carlistas. El general Beorlegui partió desde Pamplona con sus tropas hacia Guipúzcoa, donde los franquistas habían sido derrotados, para ocuparla y cerrar la frontera.

El ejército franquista llega hasta Oiartzun, pero los trabajadores de la zona de Rentería Lezo y Pasajes los rechazan repetidas veces.

Mientras, varios cruceros de Franco bombardean los pueblos de la costa (San Sebastián, Fuenterrabía, Irún, etc.). Los fuertes republicanos que existían en Guadalupe, San Marcos, Ulía y Txoritokieta son duramente bombardeados. A su vez, Irún es bombardeado y el posterior incendio destruye gran parte de la ciudad.

Poco después tuvo lugar la batalla de San Marcial donde son derrotados los republicanos. El general Beorlegui ocupa Irún y cierra la frontera. El seis de septiembre de 1936 el teniente coronel Utrilla ocupa Fuenterrabía y el fuerte de Guadalupe, el 7 Los Arcos se apodera de Gaintzurizquieta, el 9 Utrilla alcanza Jaizkibel y el 10, 11 y 12 envuelven San Sebastián dejándola sola frente al mar. Se ocuparon los fuertes de San Marcos y Txoritokieta. El 13 se toma Rentería, Pasajes y Lezo. Seguidamente toman San Sebastián y toda Guipúzcoa.

La gente de Lezo participó en las milicias que se oponían al ejército franquista.

Anduvieron luchando sobre todo por Jaizkibel e Irún. La entrada de las tropas de Franco supuso para los muchos lezotarras el alejamiento de sus casas y para otros la cárcel y posteriormente los trabajos forzados en batallones de trabajo. Uno de estos batallones estaba localizado cerca del caserío Eguzkitze, en la falda de Jaizkibel, donde hoy aún pueden verse sus ruinas. Entre los trabajos a que fueron obligados los presos destaca la construcción de la carretera de Gantxurizketa.

«Joanes Etxeberri»-ko zenbait ikasle «La Universidad de Lezo» (1985)

GIZARTEA

«LEZOKO UDAL LIBURUTEGIARI BURUZKO ZENBAIT DATU»

1.— LIBURUTEGIKO BAZKIDEEI BURUZKO ZENBAIT AIPAMEN ETA ZEHAKIZUN

Gaur egun liburutegiak 679 bazkide ditu. Hauetako askok, liburutegia irakurtzeko eta etxeko lanak egiteko erabiltzen dute, baina beste batzuk liburu bila etortzen dira gero etxean irakurri ahal izateko.

Bazkideen adina eta liburu mogimendua adierazteko, hona hemen zenbait datu:

BAZKIDEA: 679

7- 10 urte bitartekoak: 203
11- 13 urte bitartekoak: 269
14- 17 urte bitartekoak: 95
18 urte gorakoak: 52

ADINA	7 - 10	1 - 13	14 - 17	18 - tik gora
ZENBAT	263	269	95	52
NOIZBAIT LIBURURIK ERAMAN DUTENAK	218	199	50	32
INOIZ LIBURURIK ERAMAN EZ DUTENAK	45	70	45	20

2.- EGUN STANDAR BAT GURE LIBURUTEGIAN, ADIBIDE GISA

Liburutegiko martxa zuzenean gazteen eta haurren eskola ordutegiarekin lotuta aurkitzen da. Eskolako ordutegiak eta lanak baldintzatzen bait dute gaztea eta honek liburutegiko dinamika. Honela oporra garaietan, haurrak, denbora pasako eta gustoko ipuinak eta liburuak irakurtzen dituzten bitartean, ikasturtean zehar eskolako lanak egitera eta enziklopediak


konsultatzera datoz batez ere.

Adinari begiratzan badiogu, konturatuko gara gure irakurlekoa 7 eta 14 urte bitartekoa dela, gazteenak euskaraz irakurtzen dutela eta haunditzen doazen neurrian bere irakurketa aukera egiterakoan pixkanaka erdarara jotzen dutela. Helduek berriz, batez ere erdarazko nobelak irakurtzen dituzte.

Egunero gutxi gora behera 50 pertsona datozte. Hauetatik 17 lagun libururen bat hartu eta etxera eramaten dute, 14 lagunek libururen bat hartu eta bertan gelditzen dira irakurtzen edo lanak egiten, eta gelditzen diren beste 25tak kontsultak edo eskolako lanak egitera etortzen dira soilikan.

Ordutegiari dagokionez, jende kolperik haundiena 5ak 7ak bitarte horretan ematen da.

- Egunero etorritako pertsonen media: 56 lagun
- Liburu bila soilikan: 17 lagun
- Libururen bat hartu eta bertan gelditu: 14
- Eskolako lanak edo kontsultak egitera: 25 lagun
- Adina: 7-14 urte bitartekoak.



3.- ETXERAKO LIBURU MAILEGUEN ERABILPENA URTEAN ZEHAR

Urtean zehar, mailegun bidez egindako liburuen erabilpena, oso ugaria izan da. Bere kota garaianak opor garaietan lortu dituelarik.

Maileguaren denborari dagokionez, hiru epe ezberdin erabili dira, liburuen orri kopuraren eta funtzioaren arabera finkatuz. Honela ipuin xumeak, eta orri gutxien dituztenentzako (Tintin, Asterix...e.a.) 4 eguneko epea ezarri da. Ipuin orritsu eta luzeagoentzako, astebete, eta azkenik liburuak eta nobelak 15 egunetako utzi ditugu.

Mailegu sistema hau, liburutegiko karnetaren bidez egiten da. Txartelaren jabeak bi liburu maileguz edukitzeko eskubidea duelarik. Irakurleak, gehienez ere, 15 egunetako epearen barruan liburuak egoera onean itzultzeko konprometua hartzen du, nahiz eta epe hau luzeagaria izan.

Sei hilabete hauetan 3714 prestamo egin dira. Hauetatik, 2480 gazte literatura sailekoak izan dira, eta beste 1290 euskal literatura eta erdal nobelak batez ere.

Artxibo Historikoari dagokionez, esan beharra dago zortzi kontsulta egin direla.

- EGINDAKO MAILEGUAK: 374
- GAZTE LITERATURA: 2480
- BESTELAKOAK: 1290

* Nobelak erdaraz

* Euskal literatura

- ARTXIBO HISTORIKOA: 8

Karlos Etxezurieta
—Lezoko liburuazaina—

EUSKARA OSASUNEZ NOLA OTE?

Maiz entzuten dira lagunartean, komunikabideetan, politikarien adierazpenetan, ea. euskararen osasunari buruzko eritziak; baikorrak batzu, aurkakoak besteak.

Idatzi honen xedea horixe da, neure ama hizkuntzaren egoerari buruzko dudaren eritzia azaltzea, alegia.

Batzurentzat (instituziotatik jaurtikitzen den balorazio barne) euskara inoiz baino babes-tuago eta errekupeazio prozesu ukaezinean dagoen bitartean, besterentzat, euskararen alarma-argi gorri guztiak pizturik daude, egoerari berehalako irtenbidea ematen ez bazaio, bere heriotza laster ezagutuko dugula diotelarik.

Ene ustez, euskar kinka larrian dagoela ukaezina da, eta honetaz ez ohartzea itsukeria derizkiot. Bestela, hona hemen datu esanguratsu batzu:

— Euskaldun elebakarrak, hau da, erdararik ez zekitenak, desagertu egin dira. (Lehenengo baserriarren kasua).

— Populazioaren %25a da gutxigorabehera euskara eta erdara ezagutzen dituenen. hauen-tzat, euskara hutsez hitzegiteko aukera murriztu egiten da arestian aipatutako %75aren era-ginez. Praktikan ezinezkoa egiten zaio inori Euskalerrian euskara hutsez bizitzea.

— Familiaren bidezko transmisio-prozesua huts egiten hasia da.

— Helduen Euskalduntze Alfabetatze Mugimenduaren beherakada izugarria izan azken urteotan. Matrikulazioa gero eta beherago doa.

— Euskal Eskola Nazionalaren proiektua ez dirudi momentuz gauzatzekotan dagoenik, ez horixe.

— Ia komunikabide guztietan erdara da jaun eta jabe.

— Kaleko erabilpen maila gero eta eskaxago da.

Eritziak eritzi, interpretazio maila desberdinak badaude ere, datuak guztiontzat dira ber-dinak. Bakoitzak atera beza ondorioa.

Errealitateak erakusten duen bezala, aspalditxo hasitako hizkuntz-ordezkapen prozesu peto petoan gaude murgildurik, hau da, erdara, euskarari eremua jenez, jaun eta jabe bila-katzen ari da.

Egoera honi bira ematen ez badiogu, aurki da hilotz Aitorren hizkuntza zaharra.

Arazoaren inguruan bi dira klabetzat jo litezkeen galderak: Instituzioek ez al dute euskara berreskuratze adina bitartekorik eta gaitasunik? Nola egin dakioke aurre ordezkapen prozesu honi berreskurapena gauza dadin?

Lehenengo galderari gagozkiolarik, esan behar dugu ez dela inoiz hain hurbil egon euskararen heriotz soziala, baina, aldi berean, ez dela inoiz hainbeste tresna eduki bere norma-lizazioa lortu ahal izateko. Euskararen berreskurapena posible da (hainbat herrialdetan lortu da), dauzkagun tresnen erabileran datza arrakasta edo porrota.

Francoz geroztiko instituzioek euskararen aldeko saiakerarik egin badute ere, ez dute erdararen nagusitasuna galgatzerik izan, izan ere, herriari era honetako ihardun batetan dagokion protagonismoa ukatuz eta, berau, instituzioek monopolizatuz ez dago zer eginik. Ikus azken hamarkada honetako porrota.

Ene ustetan instituzioek euskararen aldeko apostu zintzoa egin beharko lukete lehenik, Kontzientzia eta borondate politikoa erakutsiz. Hurrenik, azterketa soziolinguistikoko fidaga-rrri eta erreal baten ondoren, euskararen normalkuntzarako PLANGINTZA OROKORRA

diseinatzea litzateke, hau, noski, herri mugimendu sektorialekin elkarlanean. Herriari protagonismoa ukatzea burugogorkeria da, itsukeria. Hizkuntza baten berreskurapena ez da bulegotako ihardun soilez lortuko, erabiliaz baizik, eta erabilera herriak ziurtatu behar du.

Azken urteotan instituzioek egin eta berregiten darraiten hutsen artean, Helduen Euskalduntze Alfabetatze alorrean A.E.K. (herri inizatibaz sortutako erakundea) desagertarazteko saiakera nekaezinak daude: subentzio inurritzaketak, hauek jaso ahal izateko era guztitako oztopoak, irakaslegoa homologatzeko baldintzak, e.a.

Komunikabideen alorrean berriz, aintzinako ARGIA astekariak Jaurritzarengandik jasotzen duen itotze ekonomikoa legoke. Azken lau urteotan dirulaguntza erdira jaitsi dio.

Era berean mintza gintezke euskara salbatu eta hedatu asmoz herriak sortu dituen erakundeez, halanola, Udako Euskal Unibertsitatea, E.K.B., e.a.

Bistan da diru publikoaren erabilera partziala eta diskriminatzailea dela. Hau al da bidea?

Plangintza arrakastatsu baten azken ezaugarria bitartekoen erabilera egokian letzake. Diru publikoa euskararen munduan diharduen oro eginiko plangintza serio bezain sakonaren finantziabide bilakatuko litzateke, honen kontrola Administrazioaren esku egongo litzatekeelarik, noski!

Bien bitartean, eman ditzagun gure esku dauden urratsak, hots, ahal dugun neurrian euskaraz biziz, edo saiatur bezaderen.

Eskuartean daukagun erantzunizuna izugarria da. Ezin dugu etekin politikoen haritik zintzilikatu. Jokuan gure arbasoen ondarerik gorenena dugu, inola ere, onartu hizkuntza kolonializatzaile batek ehorts dezan. Burruka dezagun gaur ondorengoek bihar izan dezaten.

«HIZKUNTZA BAT EZ DA GALTZEN
EZ DAKITENЕК IKASTEN EZ
DUTELAKO; DAKITENЕК HITZEGITEN
EZ DUTELAKO BAIZIK».

J.A. Artze



JOXE JUAN UGALDE ORDOKI

FUEGO EN JAIZKIBEL

Una de las más importantes zonas que sufrieron las consecuencias de los incendios registrados entre los días 14 al 18 de diciembre en toda geografía fue el de Jaizkibel, aunque también pueden apuntarse los daños producidos en Urdaburu, Oiartzun (Ergoien) y San Marcos. Las hectáreas destrazadas y arrasadas en Jaizkibel llegan a 2.000, mientras que en Urdaburu han sido 60 (45 de arbolado y 15 de rasas), en Ergoien unas 5 hectáreas y en San Marcos entre 2 y 3.

Para tener una visión más completa de la catástrofe que asoló Euskadi durante esos días diremos que se produjeron unos 49 incendios (datos provisionales), de los cuales aproximadamente la mitad fueron incendiados. Se quemó una superficie total de 4.395 hectáreas, 1.648 de arbolado y 3.747 de matorral.

Jaizkibel está situado entre los términos municipales de Hondarribia, Lezo y Pasaia. La mayor superficie de monte pertenece a Hondarribia con una superficie de 1.240 ha. La repoblación de Jaizkibel se consorció entre el Ayuntamiento de Hondarribia y el Patrimonio Forestal del Estado en 1.942, teniéndose que sacrificar el vuelo a consecuencia de las heladas de 1956 produciendo únicamente 18.283 m con un valor en pie de diez millones de pesetas que se repartieron en la proporción de 35 % para el Ayuntamiento y 65 % para el Patrimonio.

Se renovó el consorcio en 1958 y el resultado tampoco fue tan brillante como se esperaba a consecuencia de los incendios, y sin embargo entre entresacas y cortas a hecho se obtuvieron entre 1972 y 1978, 25.232 m³ con un valor en pie de veinte millones de pesetas que se distribuyeron en la proporción anteriormente señalada. En junio de 1980, el Ayuntamiento de Hondarribia acordó cancelar y denunciar el Consorcio que mantenía con el Patrimonio Forestal del Estado y se dirigió a la Diputación Foral solicitando consorciar con la entidad provincial.

El monte Jaizkibel pertenece a Lezo en una superficie de 141 ha. Estuvo consorciado con el Patrimonio Foral del Estado desde 1941, viéndose su vuelo afectado por la helada de 1956, subrogándose en 1960 se vio afectado por unos repetidos incendios, producidos en los años 1974 y 75, que obligó a cortar prematuramente el arbolado, obteniéndose 15.121 m³ de madera con un valor en pie de 12.821.000 pts que se repartieron en la proporción de 75 % para el Ayuntamiento y 25 % para Diputación.

En abril de 1978 se renovó el consorcio con Diputación y se constituyó el vuelo ahora existente que es una masa mezclada de pino marítimo, pino insignis, procedente en su mayoría de repoblación natural después del incendio, roble del país, roble americano, castaño japonés y prunus setorina. En 1985 se plantaron 10.000 castaños en 25 ha de pinar, a base de eliminar un 30 % de pino marítimo existente e introducir la frondosa que va a verse protegida por el resto del pinar. Además se ha repoblado 20 ha. de frondosas varias a la altura de la antena en el límite de Hondarribia.


El monte de Jaizkibel perteneciente a Pasaia está compuesto por dos parcelas que totalizan 363 ha. separadas por las 335 ha propiedad del Ministerio de Defensa que las utiliza como campo de tiro. Este monte se encuentra arbolado en una superficie aproximada de 20 ha. necesita la repoblación de casi su totalidad para evitar la erosión.

Reunión entre los Ayuntamientos

En noviembre de 1979 se celebró una reunión entre el Ayuntamiento de Pasaia con representantes de los tres municipios para estudiar la posibilidad de crear una Mancomunidad de cara a un mejor aprovechamiento del monte en el que se acordó plantear la cuestión en

cada uno de dichos Ayuntamientos para su conocimiento y posicionamiento en el sentido de que sería deseable avitar soluciones localistas e ir a planteamientos globales que tendrían que contemplar al monte Jaizkibel en su totalidad.

Que cada Ayuntamiento realice una encuesta en cuanto al tipo y cantidad de ganadería que hay en su municipio, así como sobre las previsiones que se estiman para el futuro. Que cada Ayuntamiento aporte los estudios que se dispongan sobre el monte Jaizkibel en cuanto a sus características botánicas, geológicas y análisis de tierra; que la próxima reunión la convocara el Ayuntamiento de Lezo una vez haya recibido la conformidad de todos los Ayuntamientos citados. En abril de 1980 se celebró esta reunión a la que también asistió la Diputación (al igual que a la anterior), informando de la competencia en materia forestal, montes de utilidad pública e iniciación de transferencias al Gobierno Vasco, que se materializaron en diciembre del 80. Todos estos esfuerzos resultaron inútiles.



Begoña Simon
«Egin» 1990ko Urtarrilak 3

ZINE- KLUBARI BURUZ, HAURREI EGINDAKO GALDERA BATZUK



- Zu, non sentitzen zara hobe pelikula bat ikusten, zinema ala telebista aurrean?
- Etxean banago telebista ikusten goxoago sentitzen naiz.
- Zinemara, zergaitik joaten zara?
- Botatzen duten pelikula ikustera.
- Zineman botatzen dituzten pelikulak gustokoak dituzu?
- Baii, denak gustatzen zaizkit.
- Pelikulak zuk aukeratzea zer deritzozu?
- Ongi irudituko zitzaigun. Nahiko guke aukeratu.
- Nolako pelikulak gustatzen zaizkizu?
- Parrazkoak, E.T.E. bezala edo antzekoak.
- Zure ustez, zein egunetan egin beharko lirateke zinema saioak?
- Ostirala, Larunbata eta Igandean.
- Zein ordu iruditzen zaizu egokiena pelikula bat ikusteko?
- 3, — 3'30, — 5'30
- Zinema tokia gustatzen al zaizu?
- Bai
- Norekin joaten zara zinemara?
- Aitarekin, amarekin, bakarrik, lagunekin edo lehengusuarekin.
- Pelikula ez bazaizu gustatzen, ze egiten duzu?
- Lekutik joan egiten naiz.
- Bukatu arte itxoiten dut.
- Prezioaz zer diozu?
- Oso ona dela. Beste zinetan prezioa oso garestia da.
- Nork ordaintzen du zinea?
- Nik, pagatik
- Amak ematen nau paga aparte.

Silvie Szinetar

«KATRASTO BERRIA ETA LEZO»

Katrasto berria egin behar zutela eta, Lezoko kale, bailara eta baserri izen guztiak eskatu zizkiguten, baita aurretik egindako akats guztien zuzenketak eta balizko aldaketak ere. Euskerazko ortografia jatorra jarri nahi izan ezker, orain zen aukera eta eskatutako guztiari buruzko txostena egin ezker, aurtengo martxoaren lan onarturik gelditu zen aipaturiko egunean ospatu zen Gobernu Batzordearen bilera. Behin Lezoko Unibertsitateko Udalak ontzat eman ezker, txostena erremittitu egin da katrasto berrian modu honetan azal dadin. Ikus ditzagun banan banan zeintzu izan diren txosten honen atal ezberdinak:

1.- Lezoko kale eta plaza guztien euskerazko izenen onarpen ofiziala, erderazkoak baztertuz. Gure kaletegia honela gelditu zaigularik:

1.- Kale Nagusia/ 2.- Gurutze Santuaren Plaza/ 3.- Jaizkibel Hiribidea/ 4.- Atzekoate/

5.- Zubitxo Kalea/ 6.- Piku-kale/ 7.- Goiko Plaza/ 8.- G. Lazon Kalea/ 9.- Donibane Kalea/ 10.- A. Lizarazu Kalea/ 11.- A. Pildain Kalea/ 12.- F. Gaintza Kalea/ 13.- H. Gezala Kalea/ 14.- Polentzarrene/ 15.- Larrun Kalea/ 16.- Urdaburu Kalea/ 17.- Aralar Kalea/ 18.- Aitzkorri Kalea/ 19.- Gorbea Kalea/ 20.- Auñamendi Kalea/ 21.- E. Salaberria Hiribidea/ 22.-

E. Otxoa Kalea/ 23.- Lexo Bertsolari Kalea/ 24.- Lope Isasti Kalea/ 25.- Gaintxurizketa Bidea/ eta

26.- T. Garbizu Kalea. Hauek danak Kaxko Zaharrean edo auzoetan daude. Industrialdeetako kaleak berriz, honela gelditzen zaizkigu:

ITTURRIN INDUSTRIALDEA (08): Iturrin Kalea/ Itsu Kalea/ Olaizola Kalea/ eta Abendaño Kalea. SAGASTI INDUSTRIALDEARI DAGOKIONEZ: Sagasti Kalea/ Urune Kalea/ Irurtzun Kalea eta Haritzbakar Kalea (103 poligonoa).

2.- Gaur MARKESANE deitzen dugun zuhaiztiari izena aldatu egin zaio, bertan egon LEZO- HAUNDIA izeneko jauregi zaharraren izenagatik. Kontuan eduki behar dugu toponimo honengatik hartu zuela gure herriak gaur egun daraman izena: LEZO. Markesane oso izen berria da eta ez du inolako baliorik, aurrekoarekin gonbaratuz.

3.- Urdaburu auzoan sortutako plaza berriari KARLOS SALDISEren PLAZA ipini zaio, bere izena eman dionaren oroigarri. Eta polikiroldegi aldean sortukod en plaza berriari EUSKAL HERRIA PLAZA. Bestalde, Zubitxo auzoan, egiten ari diren etxe inguruan, bi kale berri sortuko dira. Lehenengoa, Zubitxo Kalearen luzapena izango da, eta ondorioz bere



izena eramango du: ZUBITXO KALEA, eta bigarrenari ARRETXENEA KALEA ipini zaio, orain arte toki hortan egon den baserriaren oroitzarri.

4.- 110 Poligonoari, IPINTZA INDUSTRIALDEA ipini zaio, bertan egon zen baserriaren oroimenez. Industrialde honetako kale ardatzari IPINTZA KALEA izena eman zaiolarik, eta berarekin gurutzatzen diren hiru kale tranbersaleei honako izen hauek: TXATXAMEN-DI KALEA, IRIBARREN KALEA eta HERRIKOETXE KALEA, inguruetako hiru baserrien izenak bereganatuz.

5.- Katrasto berrirako agintzen zenez, nahitanahiezkua zen Nekazalgunea azpibailaretan banatzea, gero bertako baserri edo bestelako eraikuntza guztiei zenbaki bana eman ahal izateko. Eta honela egin zen gure baserritargunea honako bailara hauetan banatuz:

a) HERRIONDO BAILARA:

(Herri ondoan dauden etxe eta baserriak hartzen dituen bailara zabala) Zenbatze Sistema honela gelditzen zaigularik: 1.- Ama Karmengoa / 2.- Eskerrak Gurasoei / 3.- Darieta / 4.- Darieta Berri / 5.- Darieta Zahar / 6.- Buenos Aires Etxea / 7.- Zeru Txuri / 8.- Sagar Zulo / 9.- Matejuana / 10.- Etxetxo / 11.- Gabiria / 12.- Mihura / 13.- Amuntene / 14.- Maritxu Enea / 15.- Torrejil / 16.- Etxetxiki / 17.- Bordatxo / 18.- Nere Borda / 19.- Larrezabal / 20.- Borda Berria / 21.- Peliar / 22.- Mikura / 23.- Aizepe / 24.- Goienetxe / 25.- Goienetxe Zahar eta 26.- Bista Eder.

b) DONIBANEALDE BAILARA:

(Donibane Pasai ondoko eremua hartzen duena) 1.- Eguzkitze / 2.- Martizkone / 3.- Goikoerota / 4.- Plazeta / 5.- Lezoko Udal Hilerria / 6.- Olatzar / 7.- Intziartenea / 8.- Lopene / 9.- Bidealde / 10.- Borda / 11.- Bordatzale / 12.- Olamarta Berri / 13.- Olamarta / 14.- Kaxerna / eta 15.- Urruleku.

d) GAINTXURIZKETA-SAGASTI BAILARA:

(Sagasti baserria zegoen inguruko eremu zabala hartzen duen bailara). Zenbatze Sistema honela gelditzen da: 1.- Haritz Bakar / 2.- Sagastizabal / 3.- Riko Etxea / 4.- Sagasti Berri / 5.- Leku Eder / 6.- Harrobia / 7.- Juanteneko Karrozeria / 8.- Juantenea / 9.- Patxillaborda / 10.- Amezti / 11.- Monatxo / 12.- Monatxo Berri / 13.- Gaintza / 14.- Azkondoa / 15.- Juanmartindegi / eta 16.- Antxillastegi.

e) GAINTXURIZKETA-ITTURRIN BAILARA:

(Iturrin baserria zegoen inguruetako eremua hartzen duena). 1.- Herrikoetxea / 2.- Iribarren / 3.- Ipintza / 4.- Txatxamendi / 5.- Abendaño / 6.- Abendaño Berri / 7.- Granada / 8.- Etxeberri / 9.- Etxeberri Jatetxea / 10.- Olaizola / 11.- Itsua Behekoa / 12.- Itsua Erdikoa / 13.- Itsua Goikoa / 14.- Apaizartza / eta 15.- Gure Lurra.

f) GAINTXURIZKETA-ERREKALDE BAILARA:

(Errekalde inguruetakoa) 1.- Saizarko txatartegia / 2.- Saizar / 3.- Saizar Berri / 4.- Eguzkialde / 5.- Mendilaski / 6.- Uralde / 7.- Errekalde Txiki / 8.- Tren Geltokia / 9.- Santo Kristo Etxea / 10.- Maria Teresa Enea / 11.- Guiasa Lantokia / 12.- Gaintxurizketa / 13.- Txiki Enea / 14.- Perrena / 15.- Perreandia / 16.- Gonzalez Etxea / 17.- Biona Enea / 18.- Sagarlore Txiki

19.- Sagarlore / 20.- / 21.- Gure Txoko / 22.- Errekalde / 23.- Gure Ametsa / 24.- Salva lantokia / eta 25.- Harrobia.

g) GAINTXURIZKETA GOIKOA BAILARA:

(Gaintxurizketako goiko aldea, Hondarribiarekin mugatiar diren etxe eta baserriak hartzen dituen bailara). Dagokion zenbatze sistema honela gelditzen zaigu: 1.- Apaizartza Berri / 2.- Ariztiberry / 3.- Toki Alai / 4.- Mikel Enea / 5.- Kontxita Enea / 6.- Aingeru Enea / 7.- Patxiku Ene / 8.- Barrios Etxea / 9.- Zapatazahar / 10.- Zapatazaharburu / 11.- Argiñenea Berri / 12.- Argiñenea / 13.- Argiñenea II / 14.- Alarguntza Goikoa / 15.- Iriarte Enea / 16.- Alarguntza / 17.- Larraka Berri / 18.- Larraka / 19.- Mendi Alde / 20.- Eper Txoko / 21.- Elortegi / 22.- Goiz Argi / eta 23.- Arriaundi.

.Bukatzeko aipatu beharra dago sei azpibailara hauen arteko banatze lerroa Gaintxurizketako Errepidea izan dela, hortik alde batera edo bestera egin bait dira banaketak. Ikusi mapa.

Joseba Presentacion Barandiaran

KULTURA

«LEZOKO IHAUTERIA»

1.— HASTAPENAK

Badira zazpi urte Lezoko Herriak Ihauteriaren antolatzaileari ekin ziola, eta egia esan, bere historia motzaren bidean epe eta arrakasta ezberdinak eduki ditu. Hasiera batean, lezoar elkarte askok beren konpartsak atera bazituzten ere, handik aurrera beherakadan joan zen, ia testimonialismo hutsean murgildu arte. 1988ko Ihauteriaren antolatze lanetan ari ginela, Kultur Batzordaren bilera batetan bilduta, Lezoko Ihauteriari falta zitzaiona, berezko nortasuna edukitzea zela aipatu zen. Gure ihauteria guztiz hibridoa, inportatua, mimetikoa,... bait zen, lezoar iturrietati edaten ez zuen ihauteria, eta horrela izaki, lezoar herriak ez zuen bereganatzen, kanpotik ekarritako baina denbora berean, egin beharreko beste jai giroko ekintza moduan hartzen baizik.



Hutsunea nabaria zen, baina zuloa jatorrezko zerbaitez estaltzea ez zen ere erraza, ezin bait genuen adabaki bat beste batez estali. Euskal Ihauteria aztertzerakoan, hiritar arloko edo nekazal arloko ihauterien ezberdintasunarekin egin genuen topo. Eta Lezoko nekazal historia kontuan harturik, bide hortatik abiatzea erabaki genuen. Hortarako gure pertsonaiak behar genituen, Lezoko izate historiko-kultural-etnografikoan ondo sustraitu behar genituen pertsonaiak, eta honela lezoarroi aldameneko herrietakoek urteetan zehar eman diguten «trapujale» goitizenean oinarriturik, TRAPUJALE izeneko pertsonaia, erdi gizona, erdi behorra eta erdi batizua dena sortarazi genuen. Ordu ezkerotik bera izan da lezoar ihauteriaren ardatza, gure ihauteri «zahar»-berriaren ekintza guztiek eta baita beste pertsonaiek ere (Zirikoak, Jaizkibelgo Sorgina, Aguazila, Epailea,...) bere inguruko traman sarturik bait daukate izateko arrazoirik oinarritzkoena.

2.— LEZOAR IHAUTERIAREN TRAMA

Trapujalek lezoaren izpiritua sinbolizatzen du, ez bait dugu ahaztu behar azken batean, lezoar guztiok trapujaleak garela. Jaizkibel mendiko leizezulo batetan bizi da, eta urtean behin, Lezora jeisten da bertako Ihauteriei hasiera emateko. Lezoarrok Martizkone baserri aldean biltzen gara, ostegunzurian, gure Ihauteriaren lehenengo egunean hain zuzen, eta txistu soinu, zuzi eta altxaferuen artean herriko udaletxeraino laguntzen dugu, ondoren Trapujalek bertako balkoitik ihauteriari hasiera ematen dion urteroko pregoia irakurtzen du plazan bilduta dagoen trapujale herriaren aurrean.

Baina Trapujalaren ondoko beste leizezulo batetan, Marinazkane izeneko sorgina bizi da

ere. Eta honek betidanik bertako artzaiei abisatu egin die ekaitz eta enbaten etorreraz, beraien artaldeak babes ahal izan ditzaten. Ordain moduan bertako artzaiek urtero bost ardi eramaten dizkiote bere zulora. Sorginak baditu zenbait zerbitzari, zirikoak deritzatenak, eta beren bizkarrak ziriko larruz jazten dituztenak. Hortik omen datorkie izena, Beraien izenetan Jaizkibel mendiko zenbait gailur edota eskualde edo baserrien izenak isladatzen dira. Zazpi dira. Munttar da Ziriko Nagusia, eta Ixku, Aller, Sumi, Tiñel, Sats eta Let beste seiak,

Behin ez omen zuen ekaitzerik egin, eta Sorginak ezin izan zuen artzaiak abisatu ezertaz. Lanik egin behar izan ez zuenez, artzaiek ez zioten urteroko zerga ordaindu, eta Marinazkane biziki haserretu zen artzaien jarrera ikusirik. Bere zirikuen aurrean eta arront minduta, mendekua iragarri zuen. Garai hartan Ihauteria hastekotan zegoen, eta zegoeneko Trapujale, bere zuloa utzirik, Martizkoneko bidetik barrena, Lezo alderantz zihoan. Honetaz baliatuz, Sorginak bere zirikoei bost ardi lapurtzeko eta akatzeko agindua eman zien. Honela egin zuten, Jaizkibelgo artzaiak Ihauterira jetsita zeudela aprobetxatuz. Ardiak lapurtu, larritu, erre eta jan egin bait zituzten. Larunbatgorrian, zirikoek, larru berriekin apaindurik, herrian ospatzen ari zen, Trapujalaren Kalejiran hartu zuten parte. Artzaiek, beren ikurrak edo markak zirikoen larruetan ikusirik, beren ardienak zirela konturatu ziren, baina sorginaren bildur, ez zuten deus ere esan.

Zirikoek berriz, Sorginak honela agindurik, Trapujale zela lapurra zabaldu egin zuten Lezoko lau haizetara, herritarron artean mefidantza sortaraziz. Jendeak ez zuen zirikoen hitzetan gehiegi sinisten, baina hala ere, herri epaiketa antolatze beharrea aurkitu ziren. Epaietaren Eguna asteartebeltza izango zen. Epaiketa honetan lekuko bakarrak zirikoak izan zirenez, epaileak erruduntzat jo zuen Trapujale. Lepoan kate bat jarrita, herrian zehar eramane zuten Herio Bidaian deitutakoan, eta ondoren berriz plazara ekaririk, Subanbada izeneko ekintzari hasiera emanez, igitai zorrotz batez lepoa moztu zitzaion eta udaletxeko balkoitik bere burua erakutsi ondoren, surtara bota zen lezoarren pena eta txistuen artean. Bapatean ahots bat aditu zen, honela zioena:



Trapujale maiteok, ez gehiago negarrik egin. Burua moztu didate baina ni, oraindik bizi naiz. Ez ahaztu trapujaleen izpiritua naizela, inork inoiz akabatuko ez duen izpiritua. Alaitu beraz zuen aurpegiak, abestu eta dantzatu Ihauteriaren azkeneko egun honetan, ni datorren urtean berririo itzuliko bait naiz. Hor plazan duzuen Trapujalen gorputzetik txorizoa eta ardoa aterako dira. Jan eta edan ezazue nahi haina, badago eta! Agur trapujaleok, datorren urterarte! Ondo izan lagunak!

Horixe eginda, lezoarrok Trapujalaren sabela irekiz, txorizoa eta ardoa atera zuten, modu honetan, otordu baten inguruan, Trapujalek emandako berri ona espatzeko, eta modu honetan ere, urte hortako ihauteria bukatzeko zorian egon arren, hurrengo urteko ihauteriaren iragarpena agertarazteko. Urte batean bukatzen dena, hurrengoan errepikatuko bait da.

3.— LEZOKO IHAUTERIAREN BESTE EZAUGARRIAK

Herri honen ihauteria ihauteriko osteguna deitutakoan hasten da, hurrengo asteko Haus-terre bezperako asteartean bukatzeko. Beste herrietan gertatzen den bezalaxe, Lezon ere egunek beren izen bereziak dituzte: Ostegunzuri, Ostiralori, Larunbatgorri, Igandubel, As-

telehenarre eta Asteartebeltz, beren koloreekin lezoar ihauteriaren intentsitatea adierazten digutelarik. Zuritik hasiz, eta horitik igaro, larunbatean gorrira iristen da lezoar ihauteriaren goritasuna azalduz, gero ubela, arrea eta beltza koloreen bitartez, ihauteriaren erorketa edo heriotza azaltzeko.

Udaletxeko balkoian egunero aldatzen dira banderak, egunari dagokion kolorea agertaraziz. Lezoarrok beren jazkeretan ere, bai lepozapi eta bai zintetan, egunaren kolorea gogorazten digute. Lezoko Ihauteriak bestaldez, badauzka bere doinu bereziak, Udal Musika Akademiako zuzendaria den Xanti Espina Anduezak eginak. Lehenengo doinua, «Trapujalaren Kalejira» izenekoa guztiz alaia den bitartean, bigarrena, «Trapujalaren Hileta Soinua» izenekoa arront goibela dugu, hori bai, tarteja nota alaitsuagoekin apaindurik. Gure Ihauteriaren himnoa bilakaturik dagoen aipaturiko lehenengo kantaren letrak honela dio:

*«Ostegunzuri trapuz estaliz,
Ostiralori dantza ta kanta,
Larunbatgorri egun sutsu,
Igandubel denok goibel,
ta Astelehenarre...
salaketa, salaketa, salaketa
beltza, salaketa, salaketa, salaketa
zuri, hori, gorri, ubel, arre, beltza».*

Bukatu aurretik, aipatu beharra daukagu, Trapujale eta Ihauteriari buruz, Lezoko Kultur Batzordeak kaleratutako komikia, bera bihurtu bait da gure ihauteriaren oinarri teorikorik onena. Mikel Susperregi gaztea da gidoiegilea eta Lander Zurutuza marrazkilaria. Bion artean oso lan bikaina eskeini diote Lezoko Herriari, eta beraiei esker gauzatu ahal izan da Ihauteri «zahar» — berri honen eskeletoa. Eskeletoa egina daukagunez, urtez urte saiatuko gara ardatz horren inguruan haragia sortarazten, honela aurki gure ihauteria, bailarako onenetakoa, dagoeneko ez bada, bihur dadin.

*Joseba Presentacion Barandiaran
(Marrazkia: Lander Zurutuza
Argazkiak: Silvie Szinetar)*



Trapujaleren Kalejira

Xanti Espina

HITZA: TBA-PU-JA-LE

Ostenguzuri tranoz estaliz.

Ostenguzuri Dentia eta Kienta

Lerunbaqorri egun sotsu

Igandeubel denok goibee

Ja astelenarre, sata keta, sata keta, sata keta, beltaa

Sata keta, sata keta, sata keta zuri, hori, gorri, ubel, narre

beltaa

(M^{te} Pilar Intxaspe)

«Trapujaleren herio bidaia» Xanti Espina.

Handwritten musical score for «Trapujaleren herio bidaia» by Xanti Espina. The score is written on ten staves, primarily in treble clef with a key signature of two flats (B-flat and E-flat). The notation includes various musical symbols such as notes, rests, accidentals, and dynamic markings. Specific annotations include a circled 'A' at the beginning of the first staff, a circled 'B' at the end of the second staff, and the phrase «Aitz B. sinio eta jarrait» written above the staff between the fourth and fifth staves. The score concludes with the marking «D.C.» at the end of the tenth staff.



«TOMAS GARBIZU, LEZOAR KONPOSITORE HAUNDIAREN OMENEZ»

1989ko azaroaren 28an itzali zitzaigun betirako lezoar musikagile haundia zen On Tomas Garbizu Salaberria, bere heriotzarekin euskal konpositoreen belaunaldi oso bati amaiera emanez. 1901. urtean jaioa zen eta ordu ezkerotik bere bizitza kultura eta bereiziki musikaren bide zabaletatik abiatu izan zen, geldiunerik gabe, etenik gabe, ... beste mundurako deia aditu arte. Gazte gaztetatik zaletasun berezia azaldu zuen musikarekiko, eta Lezoko parroikiko organoa jotzen hasi zena, Arantzazu eta Donostiara joateko beharrean aurkitu zen bere ikasketak borobil ahal izateko. Urte luzeetan Pasai San Pedroko organojolea izan ondoren, Madrilera abiatu zen, non antzoki ezberdinetan organojole bezala ibili eta gero, Frantziako Enbaxadan bukatu zuen, bertako organojole ofizial gisa. Hurrengo pausua Parisera joatea izan zen, eta azkenean Euskal Herrira itzuli zenean, Donostiako Kontserbatorioko katedra lortu zuen, non solfeo klaseak ematen aritu zen bere jubilazioaren ordua iritsi arte.

Izatez oso erlijiosoa, bere eraginarik nagusia euskal kantu herrikoietatik zetorkiona zen, eta dana hau bere musika lanetan isladatzen da. Bere bizitzan zehar danetarik egin zuen: eguberri abestiak, herri kantak, meza kantak, habanerak, ereserkiak, ... baina gehien atsegin zuena abesbatzetarako musika egitea zen. Bere musika bizi bizia zen, erritmo haundikoa, barneko sua pizten duen horietakoa. Sari askoren irabazle, bereak dira beste askoren artean honako musikalan hauek: «Xauli-xauli», «Akerra ken», «Tríptico al Buen Pastor», «Missa Benedicta», «Baso Jaun», «Zu ta ni», «Babloniko», «A Pamplona voy», «Garbiñe», ...

Bere meza famatuaren artean, agian «Herriko Meza» eta «Gure Meza» izenekoak izan dira ospe gehiena eman diotenak.

Orain dela sei urte, 1982ko abenduaren 18an, Lezon udal agintariek eskeini zioten omenaldiriko, une beretik bere herriaren himnoa bihurturik dagoen «LEZOKO HERRIA» izeneko ereserkia burutu zuen. Gaur himno honen originala, bere eskuz idatzirik, Lezoko Udaletxeko Gobernu Batzordearen gelan dago ikusgai.

«LEZOKO HERRIA»

1.- *Itsaso gainetik
Jaizkibel mendia.*

*Mendi giblean,
Jaizkibel oinetan
Lezoko herria.*

2.- *Hemen biltzen dira
euskaldun jendea.
Aintzinetik bait da
guztiz ezaguna
Gurutze Ahalduna.*

3.- *Ezker, eskubi,
zelai, baserri,
ondorengoen oinarri.
Ohitura zaharrak
agurgarriak,
Herriko-seme
gizon argiak.*

4.- *Gora gora Lezo,
hain izen haundiko.
Gure aurrekoen
sorleku garbia
euskaldun herria.*

5.- *Izan lagun arteko
herri maitaleak.
Zahar eta gazte,
haur ta emazte,
egin dezagun bat.*

6.- *Eguna bezin laister
zabal atariak,
Agur zuri,
ta zuk neri,
lagunurkoari.
Agur, agur, agur,
agur t'erdi !!!*

Baina On Tomas Garbizuz hitzegiterakoan ezin dezakegu musikaren arlora mugatu, lezoar langile porrokatu hau bestelako kultur bideetan ere saiatua bait zen. Kultur gizona, polifazetikoa, euskaltzale haundia, abertzale sutsua genuen Garbizu, eta bere euskaltzale-tasunak bultzaturik, bere gazte urteetan euskaraz idazteari ekin zion.

Bere senideetako bi, Jon Garbizu «Zubigar» eta Daniel Garbizu «Iruzubi», euskal idazle iaioak ziren, eta Tomasek, «Tege» sinatuz, bere bi anaiek arlo honetan urraturiko pausuak jarraitu zituen, beraiek bezain tinko eta dotoreki. Zoritxarrez gerrak moztu zuen betirako garbizutarren luma pizkorra, beraiek idatzitakoaren oroimena ahaztukeriaren bazter iluntara kondenatuz. Zorionez, Lezon baditugu oraindik seme kuttunak, euskara idatziaren arloa ondo menperatzen dutenak, eta iraganaren kutxa ahaztuan ongi mihatzen dakitenak. Berauen lan ixilari esker, atera ahal izan dugu goiz alaiaren argi itxaropentsura iluntaunera kondenaturik zegoena.

Bai, honela da, Patri Urkizu eta Patxi Intxaurrendietaren lanari esker, hiru garbizutarren lan idatzia liburu mardul batean bildurik bait daukagu. Oraingoz ez da argitaraturik izan, baina bihotzez itxaro dugu aurki horrela izatea. Liburu honetan, lehen esan duda bezala, hiru anaien idazlanak azaltzen zaizkigu eta beraien artean On Tomas Garbizurenak. Gehien gehienak hitz lauukoak (gazeta artikulua, saioak, ipuinak,...) izan arren, badago artean, olerki sentikor eta gartsuen bildumatxo ederra ere, non aberria, bizia eta kristau izakera, modu sendo eta liriko batez kantatzen dituen. Ikus dezagun segidan «Aberriari» egindako olerkiaren exenplua.



«ABERRI»

1.- Zure semea bila zabilta
ene aberri maitea!

—Zelaitik mendi, menditik baso,
ezin arkitu ordea.

—Ikusi zaitut arnas esturik,
harkaitz zorrotzak igotzen.

—Harkaitz honentxen, leizazulotan,
zure semea bilatzen.

—Ikusi zaitut itsas barrena,
ene semetxo!, deika zu.

2.- Ez da hemen, —hark erantzun zizun
zure semerik azaldu.

—Ikusi zaitut bihotz samina,
Hura bai zala min dunda!

—Arrats larrian amaitu gabe,
ekaitz dun haize burruna.

—Lapur doilorrak oinperatuta,
itxaropena galdurik.

—Izerdi hotzaz dardar oihuka:
Hatoz semetxo nigatik!

Baina olerkari eta idazle moduan ona bazen ere, esan daiteke, okertzeko bat ere bildurrik gabe, musika izan dela bere bizitza osoa markatu duen diziplina. Berak, musikak, eraman bait du On Tomas Garbizu ospearen aldeetara. Eta honelaxe onartu zioten, bizirik zegoen bi-tartean, Euskal Herri eta Europa osoak, bere izena beste euskal konpositore haundien parean jarritz. Guridi, Usandizaga, Ravel, Aita Donosti, Sorozabal,... Bera da izartalde zabal horren izar ditziratsuetakoren bat, dudarik gabe.

Lezoko herriak honelaxe ulertu du ere, eta horregatik makina omenalditxo eskeini dio, haundiena orain dela sei urte Udal Gorporazioak eskeini ziona izan delarik; Bertan Lezoko Udalak herriko seme kuttuntzat hartu bait zuen. Ordu ezkerotik eta Lezoko Udal Musika Akademiaren bitartez bestelako oroigarriak eskeini zaizkio. Altamirako auzo berrian dagoen kale bakarrak bere izena darama eta auzo hontako jaiak iraileko lehenengo astean ospatzen dira, On Tomasen urtebetetzearekin kointziditu araziz. 1989ko jaietako egitarau liburuxkan, eta Xanti Zabala «Lexo» bertsolariaren luma azkarraren bitartez, honako bertso hunkigarriak eskeini zitzaizkion:

«TOMAS GARBIZU»

1.- Maixu ez denak, nola aipa zenbait maixu?
Estuasun horretan, hemen natorkizu.
Bertsolari soil baten, lan xumea aizu!
Nahiz gehiago merezi, zuk Tomas Garbizu.

2.- Zehatz mehatz ez dakit, noski zure berri.
Baina haundi zarela, nik ere igerri.
Euskal musikagile, finan ezaugarri.
Ondratzen duzu Lezo, eta Euskal Herri.

3.- Herriko parrokian, koruan hasia,
Harrezkero baduzu, zerbait ikasia.
Larogei eta zortzi urteko bizia.
Jenioek bait dute jenio bizia.

4.- Lanerako ausarta, perezarik eza.
Artista kastakoa, ez huts ezereza.
Organoentzat presta, hainbeste pieza.
Zu berdintzea ez da izango erreza.

5.- Musika arin edo sakonen lan erak.
Menderatzeko berdin dituzu manerak.
Zortzikoak, kantatak, mezatan aukerak.
Pelikulentzat doinu eta habanerak.

6.- Lezo herri txikian, behin sortu lorea:
Nola neurri dezaket zure balorea.
Zu Herriarentzako zera ohorea.
Ohore zuri euskal konpositorea!

Bere heriotzaren berria zabaldu zen une beretik, ikurriña eta lezoar entseina makil erdian ipini ziren, bere oroimena ondratu nahiean. Eta nahiz eta bere sendiak Altzako kanposantuan duen hilobian lurperatu, bere gorpua present egon zen Lezoko «Olatzar» kanposantuko kapilan, Lezoko herriak San Joan Bataiatzailearen parrokian eskeini zion hileta gauzatzen zen bitartean. Aipaturiko hiletan, Lezoko herriak eman zion Garbizuri bere azken agurrik sentikorrena, berak herriari egindako himnoaren notek eliza erraldoiaren hormak dardara bizian jartzen zituzten bitarte berean.

Abenduaren 1ean, Gurutze Santuaren basilikan eta Udal Musika Akademiak, Santa Zuziliaren omenez antolaturiko kontzertuan, herriko alkateak, Mikel Arrizabalagak, bere azken adio luzatu zion; hitz hunkigarriez bere bizia goratuz eta bere lana danentzako exenplu moduan ipiniz. Eta lezoar musikagile haundiaren oroigarritzko idazlantxo honi nolabaiteko amaiera ematekoan, bere iloba den Jon Garbizu Aranburuk prentsaren bitartez eskeinitako bertsoak datozkit gogora:

«OSABA TOMAS HIL DA!»

1.- Gaurko egunsentia
goibel ta iluna,
Euskal Herri guztian
agertu zaiguna;
Hodeiak estali du
ortze izarduna,
lurrean hil dalako
osaba kutuna.

2.- Adurtik Gorberaino
entzun da oihartzuna,
Tomas Garbizu hil da
ixildu ttunttuna!;
Euskadik galdu baitu
seme ezaguna,
musika arloan hainbat
lana egin duna.

3.- Musikari trebea,
gizon ospetsua,
olerkari ta idazle
samur ta eztitsua;
Jainko legeak zaintzen
zorrotz ta zintzua,
Aitorren hizkuntzaren
maitale ohoretsua.

4.- Bete berriak larogei
eta zortzi urte,
bihotza ta burua
zenituen gazte;
Orain hilko zinanik
ez genuen uste,
lajatako hutsunea
nola orain guk bete?

5.- Hemen gelditzen dira
zure abestiak,
zure irakaskuntzak
eta hitz garbiak;
zure anai ta ilobak
ahaide guztiak,
olerki, idazlanak
eta eresiak.

—GOIAN BEGO TOMAS GARBIZU SALABERRIA
EUSKAL KONPOSITORE HAUNDIA!!!

Karlox Barrentsoro

GRAN FIESTA EN LEZO

Una romería de extraordinario colorido, dentro de este siglo, era la que se celebraba del 13 al 14 de septiembre en Lezo, con motivo de la fiesta de la Exaltación de la Cruz.

La devoción de las gentes por el Cristo venerado, tal vez no haya sido posteriormente superada. Arrastraba allí no menos de 30.000 personas. Llegaban de Francia y de todas las provincias vascas. Donostia vivía la fiesta como suya, y como es natural Errenteria, Astigarraga, Hernani y Pasaia. Los devotos de Zumaia, Deba y Bermeo eran numerosos. Llegaban unos por mar y otros por tierra.


Se nos habla de la «playa de Pasaia» convertida en pradera de mayo, por la alegre juventud transportada desde Herrera en lanchas. Muchachos y muchachas llegaban en cuadrillas. Todos acudían a besar la imagen venerada del Cristo. Luego se diseminaban por la explanada que entonces había junto a la ermita. El cuadro debía de ser de muy vivo colorido. Ni el campo ni la arena eran suficientes para recoger a tanto romero. Esto, sin contar las barracas con toda suerte de provisiones y también objetos para su venta. Había corridas de novillos y danzas del país. No faltaban los cantos, armoniosos, al decir de los cronistas, ni el sonido de alguna dulzaina. Además algún irrintzi bravío, lanzado por garganta viril quebrando los riscos.


El muelle y las calles de San Sebastián, se llenaban de masas de gente. Tandas de más de 20 hombres y mujeres se lanzaban a recorrer la ciudad danzando y cantando al son de la

pandereta y guitarra o del txistu y el tamboril. Estas cuadrillas solían ser recibidas por los músicos de la ciudad. Todos reunidos, convertían los dos días en ríos de alegría desbordada, a la que se unían viejos, ricos, pobres, caballeros y hasta las damiselas más remilgadas.

Este cuadro nos da de nuevo la visión de permanencia, en cualquier circunstancia, del sentido demócrata vasco en la convivencia. Y también de aunar devociones con diversión.

La pareja de lezotarrak viene a punto, aunque vistan de faena diaria. La mujer representa a la etxekoandre, incapaz de inactividad. De ella no puede decirse aquello de: «Maria gurea irule gaizto haren atorrak zulorik asko». El, con su laia, nos trae de nuevo ante los ojos este instrumento de labranza tan norteño. Su empleo ha prevalecido hasta época reciente. Aun se usa en algunos lugares. No ha sido atraso cultural. El atraso, pienso





con Julio Caro Baroja, sería emplear un apero moderno sin utilidad práctica alguna por el mero hecho de que lo es. Tan cierta es la afirmación, que estoy segura que pronto se verán desaparecer toda suerte de arados en favor de los motocultores modernos, pues se adecúan de veras al modo en que debe trabajarse tan difícil terreno. Téngase en cuenta que el vasco siempre está abierto al progreso en el orden que sea si realmente es ventajoso para su avance individual y comunitario.

Ma Elena Arizmendi
«Vascos y Trajes» (II) (1976)



KALAKA ALDIZKARIA

«KALAKA ALDIZKARIA» Joannes Etxeberri Ikastetxeko aldizkaria duzue, orain dela hamar urte sortua, ikasturtez ikasturte eskolako ikasleen ohiartzuna izan da. Zenbait urtetan ale bakar bat ateratu da, beste urtetan berriz hiru hilabetea bi aldiz, batzutan panel moduan, aldizkari gisa gehienetan, baina ez da ikasturterik izan bere kalaka irakurri gabe geratu garenik.

Azken ikasturteotan Goi Zikloko Tailer batean egin dira KALAKa aurrera ateratzeko lanak, edukiak prestatu, lanen aukeraketa, maketazio eta banaketa. Denbora gehiena edukiak prestatzeko eman diogu, emaitza entretenigarri, jakingarri eta atsegina gerta dedin. Honela, ale bakoitzean ipuinak, bertsoak, txisteak, errezetak, denborapasak, publizitatea, horosko-poak e.a. sartu ditugu.

Banatzeke orduan, beti ez dugu era berdinean egin, batzutan katean eta lagun artean saldu egin badugu ere, beste batzutan ere doan banatu dugu eskolako lagun artean, beraz, denok eduki dute KALAKA ezagutzeko aukera.

Bukatzeke zera esan nahi dizuegu ere, KALAKA aldizkari bat ez ezik irratia bat da ere, gure eskolako emisora, alegia. Orain arte pobra gisa emititu badu ere, poliki poliki programazio sendotuko duelakoan gaude.

ESKOLARI JARRITAKO BERTSOAK

1.- Joanes Etxeberri
gure eskola da
Lezoko haur guztiak
bertara goaz ta.

2.- Hantxe ikasten dugu
euskara, hizkuntza
matematika eta
hainbat zailantza.

3.- Gure leku polti hoi
Altamiran dago
futbol eta pelotan
aitzen gara gogoz.

4.- Beste herritakoak
badaude eskolan
euskera ikastea
badute nahiko lan.

5.- Baina halaz ta guztiz
nahikoa dakite
urte batzuetara
euskera da maite.

6.- Lezon bada eskola
hainbat maisurekin
gogoz erakusteko
denok elkarrekin.

7.- Nahiko gai baditugu
egunero gelan
gutxi jolastu eta
aspertu arte lan.

8.- Azken bertsoa dugu
eskolari buruz
nahikoa esan dugu
ikasi ba buruz.



ZIGOR OIARTZABAL

«MIKELEN BELARRIAK»

Behin bazen Mikel izeneko mutiko bat. Oso gezurtia zen. Egun batetan bere amak esan zion:

— *Mikel zoaz eta lejia erosi!*

Bidean zihoala sorgin batekin topatu zen eta sorginak esan zion:

— *Gezur bat esan orduko, belarriak haundituko zaizkizu!*

Mikelek ez zuen dendaraino joateko gogorik. Orduan bide erdian buelta eman eta etxera joan zen. Eta amak esan zion:

— *Mikel lejia?*

— *Ez zegoen lejiarik!*, — erantzun zion Mikelek—

Orduan Mikelen belarriak haunditu egin ziren. Mikel negarrez hasi zen eta kalera joan zen. Orduan maitagarri batekin topatu zen eta maitagarriak esan zion:

— *Ez al duzu gezurrik esango?*

— *Ez!*, — erantzun zion Mikelek—

Eta orduan belarriak berriz txikiak bihurtu ziren eta Mikelek ez zituen gezurrik esan.



IZASKUN ETXEBESTE



«MAIXUEI JARRITAKO KOPLAK»

1.- Hemen ari gara gu
jo ta ke lanean
maixuak berriz guri
adarra jo nahian.

2.- Eskolako lagunak
ari dira ikasten
maixuak bitartian
tabernan edaten.

3.- Gelako mutilak ta
ni nago erdian,
txuleta iten dugu
maixuan aurrian

4.- Hamabost gara gelan
nahikuak bagara
gure maixu maiteak
zoratzeko aina.

5.- Maixuak eta gu
eskursio gutxi
zuzendariak dira
oso aspergarri.

MIKEL BERGARA

ASMAKIZUNAK

1.- Jateko balio du
barrundik laranja
kanpotik txuria.
Zer da?

2.- Animali bat da
pintxoak ditu eta
zerbait ikustean
bola bat egiten da.
Zer da?

3.- Hiru orratz ditu,
mugitzen dira.
Borobila da
eta batzutan tirriña
jotzen du.
Zer da?

4.- Elkarrizketa bat egiteko
balio du.
Zenbakiak ditu eta
mota askotakoak daude.
Zer da?

5.- Arkatza zorrozteko
balio du.
Borobil bat du erdian
eta estutxeetan
eramaten da.
Zer da?

6.- Etxeetan egoten da.
Irkei eta itxi egiten da.
Irekitzeko gitza bat
sartu behar da.
Zer da?

SOLUZIOAK:

- 1.- Arraultzea.
- 2.- Trikua.
- 3.- Despertadorea.
- 4.- Urrutizkina.
- 5.- Txorrozkiloa.
- 6.- Atea.



XABIER GOIA


SAIOAK

LEZOKO ARMARRIA, BANDERA ETA KOLOREAK

Herri bakoitzak bere nortasun berezia duenez, bereziak ditu ere, nortasun horren agergarri diren ikurrak, hala nola armarriak eta banderak. Lezorekin gauza bera gertatzen zaigu, bere nortasun bereziaren ikurrak bait ditu. Alde batetik bere armarrria edo ezkutua, eta bestaldetik bere bandera.

Armarriari dagokionez, Pablo Gorosabel, XIX. mendeko gipuzkoar historiagile ospetsuak honela dio:

Lezoko armarrria urre kolorezkoa da, bere beheko aldean, zilar eta urrezko olatuak daramazki, eta gainean hiru hagin. Hagin bakoitzaren gainean hosto horlegi bana eramaten duelarik.



Esaten denez, baina inolako oinarri historikoan finkatu gabe, hosto horiek zurzuri edo lertxurenak dira. Hala ere, historian zehar, hosto horiek zenbait aldakuntza eduki dute, zenbait tokitan gorri kolorez agertuz. Badi-rudi kolore alda-



keta honen arrazoia estetikoia izan dela, baina nolabait justifikatzeko, hor eta hemen kontu eta ixtorio xelebreak sortu dira. Hauetako batek dioenez, garai urrunetan lezoarrek hondar-bitarrekin batera gatazkaren bat irabazi omen zuten, Lezoko armarrriko hostoen berdetasuna odolaren koloreaz tintatuz. Ixtorio xelebre eta merkea, ez bait du inolako argudio historikorik. Buru bero batek sortua dela dirudi. Elias Salaberria lezoar pintore haundiak, gaur udaletxeko batzar eretoan zintzilik dagoen koadroan hiru hosto horlegi jarri beharrean hiru bihotz gorri jarri zituen. Inork ez daki ondo zertan oinarritu zen hau egiteko, agian aurretik aipaturiko teorietan. Auskalo.

Armarri gainean ipintzen den koroari dagokionez, badirudi markestiarra dela, eta agian Lezok bertako markesen menpe igarotako denboraldi luzea nahi digu grafikoki agertarazi. Armarrria inguratuz, besarkatuz,... gaur bi erramu edo ereintz ardaxka ikusten dira. Egia esan ez dirudi aspaldiko kontua denik. Honela diote behintzat gure herriko zenbait aiton-amonek, eta honelaxe azaltzen da Udal Artxiboan gorderik dauden 1950 — 5 artean sinaturiko udal idazki eta agirietan. Erramuaren tokian ornamendu geometriko bat azaltzen bait da. Bitxikeria gisa, esan behar dugu garai haietako idazki, agiri eta zigilu ofizialek ez dutela ere, inolako koroarik eramaten. Noiztik ote orduan, gaur Lezoko armarrriak, txapela moduan, daraman koroa markestiarra?

Udaletxeko aurrekaldean, hondararrian landuriko armarrrian, badirudi inguruan dagoena ez dela erramurik, marrazki geometriko bitxi bat baizik, baina goiko aldean aipaturiko koroa

darama. Udal Artxiboko paper artean mihakatzuz gero, 1956-7 urtetako paperetan zehazkiago esateko, koroa azaltzen zaigu, eta urte beretan, gutxi gora-behera, orain ornamentu gisa, erabiltzen dugun erramu loretsua. Zergatik baztertu egin zen aurretik erabilitako marrazki geometrikoa? Zergatik ipini zen gaur darabilkigun erramua?

Egia esan, ez da horren erraza erantzutea. Nire uste apalez, orain erabiltzen dugun erramuak badu bere lotura, garai hartan, eta Francoren garaipena ospatu nahiean, hamaika eta hamaika armarri eta motibo heraldikoetan ugaritu ziren erramu garaileekin. Horrela balitz, kentzeko beharrean aurkituko ginatke, garai bateko marrazki geometrikora itzultzeko; Garbi dago. Baina ni, pertsonalki, arrazoiak bata edo bestea izan arren, kentzearen aldekoa naiz. Gauza eta ornamentu zaharrek ere, beren errespetu ttikia merezi bait dute.

Lezoko banderarekin antzeko zerbait gertatzen zaigu. Gaur lezoar askoren ustetan, Lezoko bandera zuri-berdea da, eta horretan oinarriturik, kolore hauekin egiten dituzte lezoar kirolarien jazkerak, eta baita azken bolara hontan LEZOTARRAK elkartearen bitartez, sortu berria den lezoar jazkera folklorikoa. Alkandora, galtza eta espartin zuriak; txapela, gerriko, lepozapi eta lokarri berdeekin konbinaturik. Baina egia esan, ez da horrela. Lezoko banderak, armarrarian sustraiturik dagoenez, bere koloreak hartu ditu: zuria eta urrea. Hori bai, aitortu beharra daukagu, bi kolore hauek ez direla bi aurrekoak bezain baliagarriak holako gauzetan erabiltzeko orduan. Baina nondik datorkigu holako nahasmendua?

Ipintzako Zalditegian, zuri-berdea zerabilzkiten ikur bereizgarri moduan, eta nonahi egin ziren ezagunak, Lezotik zetozen behorrek bereizten zituzten koloreak. Pixkanaka pixkanaka jendeak Lezorekin lotu egin zituen, eta ondoren zenbait lezoar elkartek bereizgarri bezala hartu zuten ere. Allerru Elkartearen bandera zuri-berdea da, baita Ixkulin Elkarteko arraunlarien alkandorak ere, eta zer esanik ez, lezoar futbol eta esku-baloiezko taldeetako partaideen jazkeretaz. Prozesu honetan Lezoko Herriak bi kolore hauek bereganatu egin ditu, eta gaur egun, Lezoko koloreetaz hitzegiterakoan, edozeini bi kolore hauek datozkio burura.

Nire ustez, badago tokia danentzako, bai armarriarentzat, bai bandera zuri-urrearentzat, eta baita zuri-berde koloreentzako ere, batek ez bait du bestea kendu behar. Agian batzuen-tzako errore historikoa izan daiteke, heraldikaren lege eta barne arau guztiak hausten dituen, baina Lezoko herriak guztiz bereganaturik daukanez, nik honela utziko nuke auzia: bandera zuri-urrea eta kolore zuri-berdeak. Azken finean, herriren eguneroko erabilpenean bait dago bidea.

Zabarre

URTE BERRIA: EL RITO DEL DIOS TE SALVE

En Irún, Bera y otros puntos de la comarca del Baztán-Bidasoa, amén de en nuestra Lezo, subsiste aún en nuestros días el viejo rito del «DIOS TE SALVE»: durante las horas que preceden a la entrada del nuevo año, grupos de jóvenes de ambos sexos recorren calles y caseríos cantando en compañía de un «koplari», que entre estrofa y estrofa improvisa algunos versos ingeniosos.

Visten a la forma denominada «de tratantes», esto es: con albarcas y calcetines todos ellos, los muchachos camisa blanca, blusón negro y pantalón milrayas, y las chicas falda, blusa oscura y pañuelo en la cabeza.

Durante la celebración de 1985 recogimos en el barrio irunés de Behobia las coplas que entonaban los ejecutores del rito del «DIOS TE SALVE»:

*«Dios te Salve ongi etorri
Gabon jainkoak diela
Legiarekin konpli dezagun
Urte berriaren bezpera.*

*I. Alabatua, bedeinkatua
O! Sakramentu santua!
Pekatuaren mantxarik gabe
Señora konzebitua.*

*II. Konzebitu zan bere entrañetan,
Sabiduria zan bezala;
Birjiña yama semia gindu
donzella gelditu zala.*

*III. Barko txiki bat pintatu,
itxasora joan ondatu;
etxe ontako dio mandatu.*

*IV. Arbolitan den fiñen fiñena,
geresiriaren azala;
guri limosna yeman diguna,
jainkua bedeinkazala.*

URTE BERRI ON!

Presentamos también las coplas que en el mismo año se cantaban en Bera, junto a las que recogió el P. Donostia, insigne folclorista, en la misma villa navarra hace algunos años. Ello nos permitirá advertir la evolución sufrida por el rito — que, como es lógico, afecta también a los restantes aspectos.

El lector atento puede observar asimismo que existe una gran semejanza entre estas coplas y las que se cantaban por Santa Agueda en tierras de Guipúzcoa.

*«Dios te Salve ongi etorri,
Gabon jainkoak diela;
Legearekin konpli dezagun
Urte berriaren besperan».*

ACTUAL

*I. Alabatua, bedeinkatua,
Ta, Sakramentu Saindua!
Pekatuaren mantxaren gabe
Birjiña konzebitua.*

*II. Alkate jaunakin egundu gera
Gaurko arratzaldian;
Lizentziaren gurekin degu,
Ibiltzeko eskian.*

*III. Santa Barbara notiak
loretan aude betia;
Etxe ontako, etxeko alaba
urreta dauka dotia.*

*IV. Juntaturikan etorri gera
konpañia bat fidela;
Agur, etxeko jende nobliak,
Jainkuak gabon dizuela.*

*V. Nagusi jauna, barkatu;
Ez bazaitu ongi koplatu.
Koplari onak baziren baño,
ez dira emen gertatu.*

P. DONOSTIA

*«Alabatua, bedeinkatua,
Ai! Sakramentu saindua!
Pekatuaren mantxarik gabe
Birjiña konzebitua.*

*Alkate jaunaz egundu gera
Atzoko arratsaldean;
Bere baimena gerekin degu
Ibiltzeko eskean.*

*Juntaturikan etorri gera
konpañia bat fidela:
Agur, etxeko jende nobliak,
Jinkuak gabon dizuela.*

*Nagusi jauna, barkatu:
Etzaitut ongi koplatu.
Koplari onak baziren baño,
Eztire erria gertatu.*

URTE BERRI ON!!



Ejecución del rito del DIOS TE SALVE en Lezo, la última noche del año 1989

Para terminar traemos aquí las coplas que los jóvenes de Lezo cantaron durante el rito del «URTE BERRI ON» de la última noche del pasado 1989:

«Dios te Salve ongi etorri
gabon Jainkuak diyela,
legiarekin kunpli dezagun
Urteberriren bezpera.»

1) Lezo ta Errenteriya,
hirugarrena Oyartzun,
nere lagunak Dios te salbe
garbuarekin erantzun.

2) Zapata txuri paperez,
euri denian baterez.
Nagusi jauna, esan bezaigu
hasiko geran edo ez.

3) Horroko hor goian izarra,
errealdian lizarra.
Etxe hontako nagusi jaunak
urre gorrizko bizarra.


4) Horroko hor goian elorri
onduan jo ta erori.
Etxe hontako etxekoandriak
Ama Birjiña dirudi.

5) Etxeko seme zalduna
Jesukristoren laguna,
hola bakarrik gaizki zaude
behar zenduke laguna.

6) Etxeko alaba, non zera?
Iñon ageri etzera;
hatoz honera arte ondora
gure illunak kentzera.

7) Lau galai gazte badauzkat,
jarriko dizut aukera,
neroni ere gayian nago
baldin gustatzen bazera.

8) Emango bauzu emazu,
bestela ezatz esazu,
ate onduan hotzak hiltzera
amak ez gaitu bialdu.



La «txekoandre» entrega un presente a los postulantes: antes en especies hoy an metálico

9) Eskupekoa hartu degu ta
orain abia gaitian,
adiosikan ez degu eta
agur ikusi artian.

A estas estrofas en ocasiones, se añadían también otras dos distintas que son como sigue:

*Atzerrian ere badira
nahiko lanakin gainera
Herri laguntza ta zureak
denok askatuko gera.*

*Seme alabak kanpoan
sendikoentzat gastoak
zure laguntza eskatzen dugu
hemen ditugu sakelak.*

Por supuesto que en cada parada no se cantan todas ellas, sino tan solo dos o tres elegidas por los propios mozos en cada ocasión, y siempre con el estribillo del principio alternando entre unas y otras.

Creemos interesante incluir complementariamente una traducción al castellano, aunque solo sea aproximativa, para aquellos lectores que no comprendan el sentido original de la canción que se canta en Lezo:

*«Dios te Salve, bienvenido
buenas noches os dé Dios,
cumplamos con el deber
en la víspera de añonuevo».*

*1. Lezo y Rentería
el tercero Oiartzun,
amigos míos (el) Dios te Salve
entonémoslo con garbo.*

*2. Zapatos blancos como el papel,
cuando llueve no valen para nada.
Señor díganos
si empezamos o no.*

*3. Ahí arriba una estrella,
en la ribera un fresno.
El dueño de esta casa
tiene la barba color oro rojo.*

*4. Ahí arriba un espino,
pegar en la base y caer.
La dueña de esta casa
parece la Virgen María.*

*5. El noble hijo de la casa
Amigo de Jesucristo;
así tan solo andas muy mal,
necesitarías una compañera.*

6. Hija de la cas, ¿dónde estás?
No apareces por ningún lado;
sal a la puerta
para levantar nuestro ánimo.

7. Tengo cuatro jóvenes galanes,
te los pondré a elección,
y yo mismo estoy dispuesto
si es que te gusto.

8. Si vas a dar alguna respuesta,
dala ya, o si no di que no,
porque a morir de frío a la puerta
no nos ha mandado nuestra madre.

9. Ya que hemos cogido la propina
marchémonos,
ya que no nos despiden
adiós y hasta la vista.

En el extranjero también
tienen suficiente trabajo
con la ayuda del Pueblo y el tuyo
nos liberaremos todos.

Los hijos fuera,
los gastos para los familiares
por ellos pedimos tu ayuda
aquí tenemos los bolsillos.

Antxon Agirre Sorondo

23 de Abril de 1990



En algunos caseríos mantienen la costumbre de ofrecer un refrigerio a los jóvenes


LEZOKO DEITURA OHIZKOENAK

Lezoko historian maizenik agertzen diren deiturak zein diren jakitera ematea dute lerro hauek helburu. Horreterako, Lezoko sakramentu liburueta jo dugu, heriotz agiriak dakartzatenetara hain zuzen ere. 1638tik 1850era bitartean (biak barne) aipatutako liburu horietan erregistratutako 2.247 hildakoen deiturak jaso ditugu; beraz, berrehun urtetik gora, emaitzaren adierazgarritasunaren onerako. Parentesi artean lehen aipamenaren data jarri dugu.

LANDER ZURUTUZA
(Argazkia: Imanol Zurutuza)

SALABERRIA	(1638)	128	bider
AGIRRE	(1640)	91	»
ETXE BERRIA	(1643)	70	»
ETXE BESTE	(1658)	41	»
ETXEGARAI	(1640)	36	»
ELIZONDO	(1661)	32	»
ARRILLAGA	(1642)	30	»
MARTIERENA	(1662)	29	»
SISTIAGA	(1724)	28	»
ARPIDE	(1651)	27	»
UGALDE	(1651)	24	»
PUI	(1698)	24	»
LUJANBIO	(1717)	23	»
ARRETXE	(1654)	22	»
IRURUETA	(1671)	22	»
GARMENDIA	(1683)	22	»
IRIBARREN	(1640)	21	»
ARRIETA	(1648)	21	»
OLOIZOLA	(1690)	21	»
YARZA	(1719)	21	»
DARIETA	(1648)	20	»

GAZTELUMENDI	(1726)	20	»
OLLO	(1644)	18	»
LASARTE	(1640)	17	»
ENPARAN	(1674)	17	»
KAREAGA	(1651)	16	»
IRIARTE	(1653)	16	»
INURRUSUN	(1680)	16	»
ITURAIN	(1638)	15	»
LIZARAZU	(1774)	15	»
IRIGOIEN	(1641)	14	»
LARGO	(1644)	14	»
ARAÑABURU	(1647)	14	»
ARISTIZABAL	(1696)	14	»
ISASA	(1710)	14	»
MIURA	(1644)	12	»
ZAPIAIN	(1651)	12	»
GAINZA	(1654)	12	»
SARASOLA	(1754)	12	»
IRIBERRI	(1638)	11	»
GARBISU	(1673)	11	»
ALZA	(1712)	11	»
ZABALETA	(1751)	11	»
URZELAIETA	(1773)	11	»
ELOSEGI	(1792)	11	»
AURELA	(1639)	10	»
BIDARTE	(1641)	10	»
SANZENA	(1642)	10	»
ZUBIZARRETA	(1666)	10	»
IRURETA	(1680)	10	»
MARTIARENA	(1792)	10	»



LITERATURA

«SESAMOS». HERIOTZARI ENBIDO

Rafa, Pello eta Inigok aspalditik zuten lana. Lehenak FRYCA-n egiten zuen lana, bigarrena irakasle zen JONES CHUCHUBERRY ikastetxe publikoan eta bestea ingenieroa SOBREGOZO Altzairu Kizkurtuak enpresan.

Aspaldiko lagunak hirurak, gazte garaietan mendizale porrokatuak izandakoak. TORTUNA mendi taldearekin hainbat trabesi, eskalada eta expeditzioak egin zituzten. Bakoitza bere aldetik lanean hasi zenean mendiarekiko zaletasun hau, nahi gabe, bazterten joan ziren. Halere herrian juntatzen ziren bakoitzean «aspaldiko» denboretaz hitzegiteko aukera bazuten. Hain zuzen, lanetik irtenda, egunero txikiteoan jarduten zuten. Hori bai, tarte txiki batekin, zazpiretan bakoitza bere etxera joaten zen BARRIO SESAMO ikustera. Hau ikusi eta gero berriro taberna batetan geratuaz kriston parrak egiten zituzten. Bazuten zertaz hitzegin: Pellok lepoa luzatu eta «Ocho, vamos a cantar la canción del ocho» Inigo eta Rafak: ¡OCHO! ¡OCHO! ¡OCHO! ohiukatzen zutela.

Hiru lagunak ondo pasatzen zuten, eta bazterrean zegoen jendeak ¡LEJOS! ¡CERCA! eta abarrekin ere parre egiten zuen. Inigok «El monstruo de las galletas» oso ondo imitatzen zuen. Pello eta Rafak «Epi» eta «Blas» ere ondo menperatzen zituzten.

Beno, barregarria bada ere, 27-30 urte bitarteko hiru gazte hauek «de fruta madre» pasatzen zuten. Denborarekin, beren txikiteo tarteko programa telebistatik desagertu egin zen. Gezurra badirudi ere, hiru lagunak bizitza goibeldu egin zen, eta txikiteatzen jarraitzen bazuten ere, beren solasaldiak nahiko tristeak bilakatu ziren.

Jainkoak urratzen dituen bideak hain dira ilun eta misterioitsuak, hiru lagunak drogatzeko hasi zirela. Ez dakigu zehatz mehatz nola. Haseran txokolate pixka bat, gero pastillak, azidoak... eta hirurak ongi irabazten zuten... zera... egunero kanposantura joaten ziren kokaina esnifatzera. Pellok bazuen erdi hutsa zegoen familiko panteoi bat. Udarantz zintzilatzen, eta neguan kalefakzioarekin, hantxe pasatzen zituzten arratsalde guztiak hauts zuria sudur zuloetatik sartzen.

Tarteka diapositiben proiektorea eramaten zuten «gazte» denboratako irudiak berbizi-tzeko. Mendira joaten zirenekoak gehien bat.

—Joer, Rafa ik erki rapelatzen iuken, e! Zea, diapositiba ortan Merzner-en piyura duk...
(1)

—Ei ya duk, bai, ei ya...

Eta diapositiba gehiago pasatzen zituzten.


—Ara Peio Lakartxelako buzoian pixa iten. Je je je!!

—Ezin nian aguantatu ta...

—SNIF, SSNIFFFF, SSSNNIIFFFF!!! —Inio, pasaidak koka geyo!!

—Etziok gaixki au, ez...

BARRIO SESAMO-ko videoak ere jartzen zituzten. Bestetan panteoian 35 urte zera-mazkin Pellon aitonarekin musean aritzen ziren zortzi erregetara. Aitonarekin bikote zenak irabazten zuen beti (Mugimenduz nahiko motela zenez, kartak begiratzen zizkioten).



Honela, kanposantuko ambiente morboso eta espiritualetan, drogaren hodei psikodeliko eta flotantearen gainean, beren aspaldiko oroimen zaharrak berpizten zituzten esperientzi berriak aurkitu nahiean.

Baina iritsi zen, ordea, kokainak efektu berezirik egingo ez zien unea. Momentu hau ailegatu zenean bizitzak zentzurik ez zuela ondorioztatzen iritsi ziren:

—I, gure bizitzak ez dik zentzurik...

—Ortan niok nire.

—Bai, oixe.

—Bizitzan zear denetik ein diau. Sentzazio terreno guziyak sentitu izkiau.

—Bai oixe...

—Bizitzako sentzazio guziyak geyau areagotzeko kanposantura etorri izan gattuk, erioztan ondora, emen sentzaziyuak geyo izango zirelakoan.

—Bai oixe —batek

—Bai oixe... —besteak.

—Baina emengo sentzaziyuak limitera iritsi duk.

—Bai oixe, guk e sentzaziyu berdiña diau.

—Bai, oixe.

—Nikuste beste esperientzi eta sentzaziyu batzuk aurkittu bear ttugula. Eta eztizkiau emen aurkittuko.

—Eta non aurkittuko izkiau?

—Beste mundu batetan... Ildakoen munduan...

—Eta kanposantua ez al duk ildakoen mundua?

—Ez motel, emen marmol, lore eta ezurrik besteik etzeok. Bazeok beste mundu bat.

—*Eta nola joango gattuk ara?*

—*Ba... gu ilda.*

—*I eyo ondo!! Ta il da geo ez bazeok ezer, ze ingo diau, berriz bueltatu?*

—*Sentzaziyu berriak nahi baldin baizkiaui oi ein bear diau.*

—*Ta lantokiyan ze in bear diau, exzedentziya eskatu?*

—*Erabaki au artu ondoren mundu ontako kezkiak ez diau izango.*

Era honetan, Rafa, Iñigo eta Pellok heriotzaren sentzaio berria experimentatzea erabaki zuten. Igande batetan, hirurak, Aiako Harrira joan ziren. Txurumuru puntaraino, hain zuzen. Bertan beren heriotzaz kalkuloak egiten hasiaz.

—*Ze, irurak batea salto ingo diau?* — galdetu zuen Rafak.

—*Joer, i. Altura aundiya zeok...* — Pellok.

—*Bai oixe.* — Iñigok.

—*Ez gattuk uain atzea botako, ez...* — Rafael berriro.

Iñigo eta Pellok, lepoa luzatuz, amildegi aldera begiratzen zuten kontu haundiz.

—*Joer Rafa... beldurra emateik* — Pellok.

—*Aze kazkarrekoa, i* — Iñigok.

—*Ta gañea, uain salto ein, kriston zartakoa artu, akatu eta geo sentzaziyuik ez bazeok...?*
— esan zuen Pellok.

Beste biak pentsakor geratu ziren. Pellon arrazonamendua ez zegoen, egia esan, guztiz desbideratua.

—*Bazekiat!!* — ohiukatu zuen Rafak— *Irurak salto in bearrian batek bakarrik in dezala. Geo beakin espiritismoaren bitartez kontaktuan jarko gattuk. Beak emango zigukango berri.*

Idea honekin bakoitzak bere kalkuluak atera zituen. Egia esan, sortez erabakitzen bazan, norberaren burua ateratzeko %-eko 33'3 periodoko probalitate zegoen...

—*Beno, oixe ingo diau* — Pellok.

—*Bale, oixe ingo diau* — Rafak.

—*Bai, oixe ingo diau* — Iñigok.

Eta horixe egin zuten...

Edozein notariok zalantzan jarko lukeen lazto motzenaren sorteo prozesuaren bidez, Iñigori tokatu zitzaion Txurumurrutik behera salto egitea.

—*Ala, Iñio, iri tokatu zaik* — Rafak.

—*Bai, oixe, Iñio, ik in bear duk salto* — Pellok.

—*Zea, asuntua ez duk oso legala izan. Zea... nik...*

—*Bea, Iñio...*

—*Joer, Pello, nik ez... Rafa, berriz iten badiau sortea...!*

—*Iñio...*

—*Iñio...*

Pello eta Rafak Iñigo bi besoetatik eldu eta amiltzera zijoazen.

—*Bat...*

—*Ez, joer... mesedez...*

—Bi...

—Ezet, laostia, nik ez diat au meezi!!

—Eta... iru!!!

—EEEEZZZZZ...!!!!

Momentu batez, Iñigoren hegalaldia, Aiako Harriko putreen planeatze goxo eta leunarekin nahastu zen kontraste bizian. Iñigok harkaitzen kontra KRAKTXOF jegin zuen, kalabaza haundi eta ustela bailitzan.

Hurrengo egunean, egunkarietan, ondorengo irakur zitekeen:

«Montañero de 32 años fallece en Peñas de Aya al lanzarse en parapente sin parapente. Iñigo Apeztegia Ibarguren, junto con dos amigos pasaba por el monte cuando etc, etc...»

Funerala oso polita izan zen.

Magia beltzak eta esoterismoak espíritu batek gorputzetik alde egiteko estipulatzen dituen hiru egunak pasa zirenean, Rafa eta Pello Inigoren espírituarekin kontaktuan jartzeko tramankulu guztiekin prest zeuden panteoian.

—Espíritu si estás ahí, manifestate... — Pellok.

—Eso, eso si estás ahí haz una manifestación... — Rafak— *I, baña Iñiokin euskaraz inbearko diau, ez?*

—Eonai pixka bat, bea ez duk lenbiziko aterako ta, lenengo intermeaiua aterako duk.

—Espíritu... Dí que estás ahí — Pellok.

—Dí que estás ahí... Espíritu — Rafak.

—Dí, espíritu, que estás ahí... — Pellok.

—Dí que estás, espíritu, ahí... — Rafak.

—I, Rafa, imaginaziyo geyo jartzak. Etzakela nirea errepikatu...

—Beno...

—Espíritu, si estás ahí mueve el vaso... — Pellok.

—Vaso, si estás ahí mueve el espíritu... — Rafak.

—Laostia, ola ez diau ezer ingo!!

Derrepente basoa mugitu zen:

—Hola, soy Zarathustra II, el Zalubo de la ché de la O, del principado de las tinieblas de Oquendo.

—Oye, mira, que somos amigos de Iñigo... ¿Está por ahí?

—No se ¿qué es, de la sección bilingüe?

—Pss... no sabemos. Es nuevo.

—Esperen un momento...

—I, erantzun ttek — Rafak.

—Bai, zerbatte bazeok alde ortan...

—¿Oyes?

—Sí, dinos. — Pellok.

—Dinos, sí. — Rafak.

—Ahora se pone... Teneis que llamarle.

—*Ĥiioooo!! Or al yo...!!* — Pellok

—*Or al yo, Ĥiio...!!* — Rafak.

—*Baaaiii, hemen niok. Aze zartakua artu nian mendiyan.*

—*Zermouz aldi ortan?* — Pellok.

—*Aldi ortan zemouz?* — Rafak

—*JA,JA,JA* — Ĥiigok— *Emen etziok ezer. Jendia, jendia besteik ez.*

—*Ba altziok sentzaziuiuk* — Pellok.

—*Sentzaziuiuk ba altziok* — Rafak.

—*Latza. Sentzaziyu latza. Kixki guztia pelotetan ibiltzeuk alde batetik bestea. dezentziyik etziok. Aze lotsa... ta otza...*

—*Lurran aldian diferentziyik ba altziok?* — Pellok.

—*Ba altziok, lurran aldian, diferentziyik?* — Rafak.

—*Ikaragarriya. Lurrik etziok. Denak zintzilik geudek. Onea iritxi ordu soka bat ematen ttek zintzilik jartzeko.*

—*I, Barrio Sesamo botzen al ttek or?* — Rafak.

—*Keba! Kokik ere etziok, monuak jota natxiok.*

—*Orduan ze, gu orra joteke ze panorama ikusteuk...* — Pellok.

—*Ni biñipin eniok batere gustoa.*

—*I Pello, ze ingo diagu?*

—*Etzekiat Rafa, Ĥiioek ez dik esperantza onik ematen... Lurrean geatuko gattuk.*

—*E!!! Ze pasten duk* — Ĥiigok— *Ez nauzue emen bakarrik utziko ez?*

—*I, Ĥiio, konprendituzak. Ez duk asuntua nai genian bezala irten.* — Pellok.

—*Oixe, Ĥiio, konprendittuzak. Ez duk asuntua nai ge...*

—*KAGUEN SOS, ZERRIPURDIOK, KABROI ALENAK, LAGUN BELTZAK...!!!*

—*Ola ez jarri, Ĥiio. Prueba bat izan duk eta ez duk ondo atera...*

—*Oixe, Ĥiio, prueba bat izan duk eta ez duk ond...*

—*Ez duk au ola geatuko, nazkagarriyoik!!!*

—*Beno, beno Ĥiio, ala... geroarte. Beste batean deituko... Launak ein ta aiai sokasaltuan, ez aspertzeko...*

Ĥiioek, sokalatzetatik zintzilikatutako anitz indibiduo malerusek habitatutako paradiso estrainioko ilunbeetatik ahots itzaltsu eta tenebrosoz bere lafunei eskeinitako irain jario guztiz aberats eta arrunt kakofonikoa ez da ez, hemen, hitzez, adierazteko modukoa. Esan dezagun, laburtuaz, Ĥiioek Rafa eta Pello, bere lagun ohiak, porkulotik hartzera bidali zituela bere mendekua, dudarik gabe, ikaragarria izango zela garbi adieraziaz.

HAMABOST URTE ETA GERO...

Gu gaituzu Oskorri...

Rafa eta Pello aurreko partean aipatzen diren xuxedoen ondoren desintoxikazio kura eginda gizartean «reinsertatu» ziren gainontzeko humano guztien bizitza berdina jarraitzeko asmoz. Honela, kixki guztiak goizago edo beranduago egiten duena egin zuten. Ezkondu,

seme-alaba pare bat eduki, hauek guarderia batetara bidali; igandetan bostehun pela eman txutxeriak erosi edo tabernetako martzianotan botatzeko; lehen jaunartzean marinerok jantzi... beno, ohizkoa dan guzti hori.

Santu Guztien egunean, azaroan (jende guztia hiltzen den edo akatzen duten hilabeteen), kanposantura abiatu ziren bi lagunak beren emazte erdaldunekin:

— *Pues sí, Conchi, me he comprado en «SARA» un vestido para la boda del hermano de Pello, que no veas, oye...*

— *Pues el otro día estuvimos Rafa y yo viendo una cocina en «XASPI» porque en «XEI» no tiene tanta «auquera», ya sabes...*

— *Oyes, Pili — Rafak — Que Pello y yo nos vamos a dejar unas flores a Iñigo...*

— *Muy bien... Hasta ahora... ¿Y que te decía? ¡Ah, sí! Pues es un modelito muy mono y...*

— *Atso okin ezin duk bat pasiatzea atea — Rafak.*

— *Ez, oixe, ezin dik batek pasiatzen atea atsuakin...*

— *Iñio gizajua, aze putta ein genion... — Rafak.*

— *Putaa earra bai... — Pello — Orduan gaztiak giñattuken da...*


— *Mutilla majua yun...*

— *Arrunt jatorra mutilla...*

Bi lagun Iñigoren hilobi aurrean zeuden, zutik, buru makur, loreak eskuan, aitonak etxean duen fotografian Gernikako Arbolaren aurrean zapela bi eskutan duen tipoa bezala.

— *Iñio... —* hasi ziren esaten solemneki Rafa eta Pello — *Erriak ez au aztuko... Ik ereindutako azia...*

Bapatean, hitzegiten bukatu baino lehen hilobiko marmolak urratu, gurutzeak, puskatu, lurrak ireki eta pota, diarrea, karkaxa eta japo berde eta lirdinga ustelen pixarkada artean Iñigoren ahotsa gogoratzen zuen orroko koipatsuak biak goitik behera busti, zipriztindu, urtu,



—PPPUUUUUUUUUUUUUUUUAAAAAGGGGGGGG!!! ERRIAK ETZAKIAT
BAINA ZUE BLOK EZ!!!! PPPUUUUUAAAAAGGGGGFFF!!!

«... Abriose entonces la tierra del Campo Santo en el lugar donde la desdichada y desprevenida pareja rendía honores al amigo antaño muerto. De entre las pierdas de marmol destrozadas por el estertoreo vómito licuoso sobrenatural y putrefacto asomose un gran bujero escupiendo, cuan estruendoso naranjero de la guardia civil, más y más chorros de tierra y sangre coagulada, cebadas y mugrientas solitarias, verdes intestinos, negro barro y agua mineral adulterada. De entre semejante eclosión de indescriptible pure, mierda y podredumbre en continua expansión por el espacio adivinabase el rostro endiablado y sonriente del odio y de la venganza de quien desprende y libera con premditada alevosía la incontinencia intestinal de cuatro siglos. ¡ñigo».


Las negras, oleosas y fétidas aguas inundaron por completo los maltrechos cuerpos de los dos amigos que, en el acto, sucumbieron ante tamaña avalancha. Cerrose la noche en la tierra toda y en el firmamento entero, y escuchose en el lugar un terrible tronar que zozobrar hizo los paralizados cuerpos y turbado espíritu de los allí congregados. Y oyose retumbar entre la oscuridad la voz, otrora conocida, de tres amigos vueltos a reunir en el putreo y fangoso abrazo del tiempo, la muerte y la odiosa venganza del rencor giñoso: ¡¡OCHO, OCHO, VAMOS A CANTAR LA CANCION DEL OCHO...!!! (...)

LOPE DE ISASTI. *Compendio de Incompendio*. 723. orrialdea.
Donostia 1984.33. Edizioa. ELKAR S.A.

«Gogoan eduki, gizona, ximaurra haizela eta ximaurretan bihurtuko haizela)

(1): Vide J. M. Apalategi. «Modelo para la codificación de la producción oral: un mito atañundarra». Donostia 1986.

MIKEL SUSPERREGI, 89, Abendua



«LEZOKO ITSUAREN ZORIGAIZTOKO IXTORIOA»

Itsua bizi naiz irudizko mundu honetan, itsua Euskal Herri koloretsu hontan. Ezin dut deus ikusi, ez itsasoa eta ez legorra, ez erreka garbiak eta ez nire herriko kale zikinak, ez laguna eta ez arerioa. Ezin dut deus ere ikusi. Hauxe zoritxarra nerea!. Baina ez ezazuela pentsa betidanik itsua naukazuenik, ez!. Nik ikusi dut, zuek orain ikusten duzuen bezala. Baina zorigaitzez itsutu naiz, edo hobeto esanda, itsutu naute. Nik badakit nire baitan, zein nolakoa den itsasoaren urdintasuna, baita belarraren berdetasuna, eta baita odei haserrean iluntasuna ere. Nik ikusi dut amaren irripar goxoa, olatuen apar zuria, eguzkiaren argia, loreen alaitasuna, euskal mendien irudi xarmangarria... Baina orain ezin dut berriro ikusi, nire orimenen sasi-irudietan baizik. Hauxe trixtura ezin berriro ikusi, horren ondo ikusi eta ezagutu den irudiz eta kolorezko mundua, hauxe zorigaiztoa nerea!.

Ezin dut nire burutik kendu, Jaizkibelera, «Zelaibeltzeta» izeneko leku misteriotsuaren bila abiatu nintzen ilar-

gibeteko gau ilun hura. Zertarako abiatu nintzen?, zertarako joan behar izan nuen nire zoritxarraren bila?. Ni harotza nintzen, harotz ona gainera, eta oso famatua Lezon, nire herrian, eta baita bailara osoan ere. Errenteriatik etortzen ziren nire bila, lanaren bat edo beste agintzera. Bai Koxme Salaberria oso izen haundiko harotza izan da Oiar-tzualde osoan, eta orain berriz, hemen nago itsua, nire eskuz ezin baliaturik, eta

jendearen karitatetik bizitzera kondenaturik. Eskerrak ardo naparrari!, berak ematen bait dit bizitzen jarraitzeko, egun goibeltz hartatik, zeharo galdurik daukadan bizi grina. Berak ematen dit beroa neguko gau hotzetan, baita gaisoaldi luzeetan ere. Bai, ardoa da nire lagun bakarra, nire maitalea, nire bide laguna. —*Begira, hortik doa Koxme mozkorra*—, diote. Baina neri bost ajola, ardoak eman bait dit, beraiek eman ez didaten adiskidetasun eta laguntza.

Gaur hotzikara haundiekin nago hemen Kale Nagusiko bazter honetan makurturik. Min haundia daukat gorputz osoan, baita nire gogoan ere. Gaisorik nago bai osasunez eta baita sentikortasunez ere. Inork ez dit kasurik egiten. Bost ajola neri!. Hor daude danak Santo Kristoren Plazako tabernan edaten eta algara haundiz hitzegiten. Danak daude parrezka, eta ez dira nitaz erreparatzen, edo ez dute nahi. —*Begira, Koxme mozkorra!*, horren harotza ona izan zena, eta orain Jaungoikoak zigorturik, mozkorkerian dabilena!. Horren piura!— errepikatzen duten behin eta berirro, nire aurretik igarotzerakoan—. Baina gezurra, ni ez naiz Jaungoikoak zigorturik, Jaizkibeleko sorginek baizik!. Baina ez dute inoiz entendituko. Alperrik ari naiz!



Lezon danok ikaturik geunden, gaitza gure artean zabaldu zegoen, eta gure jendeak euliak bezala erortzen ziren, baserrietan, kalean, kaian, edozein tokitan. On Jexux gure bikarioak zioenez, Jaungoikoak lezotarren pekatuak zigortu nahi zituen, eta pekatzaile guztiak akabatu arte ez omen zen geldituko. Danok ginen izaturik. Atsoak Santo Kristoren Basilikan egun guztia errezatzen eta errezatzen, gizonak egunero hiltzen zirenen gorpuak erretzen gaitza gehiago zabal ez zedin. Egundak, haiek, lezoar guztien oroimenean ikara haundiz gordetzen direnak! Herria erdira murrizturik zegoen, eta ia ez zen haurrik bizirik gelditzen. Danok makalduz geunden, indarrak gabeak, eta lanerako gauza ez ginez, gosete haundi baten menpean erori ginen laister.

Ez genuen inolako esperantzarik, eta On Jexuxek ez zigun inolako irtenbiderik eskeintzen. Beraren ustez, oraindik pekatu asko omen zeuden zigortzearen. Egia esan, bera ere nahiko makalduz zegoen, kardabera baten itzala bait zirudien. Horregatik, beltzez jantzirik atso bitxi hura bere ixtorioak zabaltzen, etorri zenean, askok, eta nik tartean, sinistu genuen berak esandakoaz. A zer erremedioa!

Ixidora izena zuen atsoak, zioenez, gu jasaten ari ginen gaitza ez zen Jaungoikoak bidalitako zigorra. — On Jexuxek kontrakoa esan arren, — Jaizkibelen bizi zen izaki baten mendekua baizik. Zapalaitz izena zuen, gizakien aurrean zapalaitz baten modura azaltzen bait zen, eta hamaika sorginez inguraturik bizi omen zen Zelaibeltzeta izena zuen zelaitxo ezkutu eta, gu denontzako, ezezagunean. Zapalaitzek Jaizkibeleko basoetan jartzen zituen bere arraultzak, eta bere hamaika sorginek, beren landaretza basatiaren itzalpean egiten zituzten beren akelarreak. Baina baziren bost urte luze, lezotarrok basoak moztzen hasita ginela gure ontziola aberatsentzako behar genuen egur ugari bilatu nahiean. Eta noski, Zapalaitz eta bere hamaika sorgin oso haserreturik zeuden lezotarrekin, horrela jarraitzekotan, laister bizitokirik gabe geldi bait zitezkeen.

Horregatik Zapalaitzek gaitza ekarri zuen itsasoko beste alde urrunetatik, eta baita erein ere lezotar biztanleriaren artean. Ixidorak herriko plazan behin eta berriro esaten zuenez, gaitza ez zen desagertuko Santo Kristoren Basilikako urrezko kaliza Zapalaitzen oinetara eramanez, eta ondoren basoak berriro beren aintzinako eremuetara itzuli arte. Guk sinisten genion, baina On Jexuxek ez gintuen atsoarengana ezta hurbiltzen uzten ere. Beraren ustez, deabru berak hitzegiten bait zuen Ixidoren ahotik. Behin makil luze batekin, eta bere azken indarrak, nik ez dakit nondik, atereaz izugarritzko zartakoa eman zion Ixidori, heritik betirako bidaliz. Ordutik ez genuen gehiago ikusi, baina denon bihotzetan bere hitzen mezuak bizi bizirik zirauen.

Gaitza ez zela atertzen, haundiagotzen baizik, ikusiz, kai aldean bildu ginen herriko gizonok, eta txanponak airera boteaz, zozketatu genuen zein zen zapalaitzarengana, urrezko kaliza eramatera joan behar zuena. Zorigaitzez nirea izan zen bide motzagoa egin zuena, eta ni, kaliza ostu behar izan nuena.

Ilargibeteko gaua zen, eta horregatik egokiena Zelaibeltzeta misteriotso alderantz gure kaliza eta gure basoarekiko harturiko errespetuaren akordioa eramateko. Ixidorak, joan aurretik, marraztu egin zuen hondarrean Zelaibeltzetara zeraman bidea, eta horregatik ez zitzaidan bidea oso luzea suertatu, bi ordu t'erditan Zelaibeltzetako sarrera iragartzen zuten bi arroka haundiren aurrean jarri bait nintzen. Nire hankak ahuldurik zeuden, dardaraz, baina egia esan ezin nuen zehaztu gaitza, gosetea edo bildurra ote zen ahuldiaren arrazoia. Sartu nintzen eta lehenengo pausoak eman bezain pronto, hamaika sorgin beltzak ilunpeetatik atereaz, inguratu ninduten. Hura ikara nire bihotzean sartu zitzaidana!, baina ahulidadetik indar berriak atereaz, aurrera jarraitu nuen, kabi erraldoi baten aurrera iritsi arte. Han zegoen Zapalaitz, izugarria zen, izugarri haundia eta izugarri ikaragarria. Bazekien hitzegiten, euskaldunok hitzegiten dugun hizkuntza beraz, eta zenbaitetan ni baino askoz gizatiarragoa zirudien, bere irudiak hegatzia zela ondo azaldu arren.


Bere oinetan Ixidora zegoen, eta ni ikusterakoan, hurbildu zitzaidan, txarru ilun bat eskuan ekarritz, eta behin urrezko kaliza nire eskutik jaso, eta nire ahotik lezotarren basoen aldeko promesa aditu, txarrua eskeini zidan honako hau esaten zuen bitartean: «Eskerrak lezotarrik zentzudunak gelditzen direla oraindik. Eskerrak nire hitzak aditzen eta betetzen jakin izan duzuela, bestela ez zen Lezo osoaren akabera oso urruti egongo. Baina zoritxarrez, beranduegi da, beranduegi zuen barkazioa lortzeko, bestelako ordainarik egin gabe. Zuk ikusi duzu Zelaibeltz, ikusi gaituzu ni eta Zelaibeltzetako hamaika sorgin beltzak, ikusi duzu honera dakarren bidea, eta gauzak bere aurreko egoerara itzultzeko ahaztu behar duzu betiko ikusi duzun guztia. Tori, edan ezazu txarru hontatik, eta dena lehen bezala izango da!».

Gehiago pentsatu gabe, luzatu nuen eskua eta txarrua irmoki hartuz, zurrupada luzea eman nion. Handik aurrera zer gertatu ote, zen guztiz ezezagun eta ulergaitz egiten zait gaur oraindik ere. Esnatu nintzenean Lezon negoen, nire ohean, baina nahiz eta gogo biziz nahi izan, ezin nuen begiak ireki. Tomax nire lagunak esan zidanez, jakin nuen begiak zabaldurik neuzkala, baina itsuturik nengoela. Hura izan zen bete behar izan nuen ordain ankerra. Denbora luzez eroturik ibili nintzen alde batetik bestera, Zapalaitzarengana ailegatu nahian, nire bista errekobratzeko esperantzetan, baina arras alperrik, ezin izan bait nuen inoiz bidea ezagutu. Herrira jeitsi nintzenean, danak zeuden nire kontra, eta On Jexuxek exkomunioa bota zidan, lapurketa sakrilegoaren erruduna ni bakarra bainintzen. Inor ez zen nire alde atera, eta nahiz eta gaitza gure artetik desagertu inork ez zituen bere eskuak nire alde busti nahi izan.

Ordutik kale gorrian bizi naiz, jendeak ematen dituen pixarrekin mantendurik. Ezin dut ikusi, baina ezta ezin ahaztu ere, lezotarrok egin didatena. Hotzikarak ari naute akabatzen, ari naiz nire azken arnasa ematen, baina oraindik gorrotatzen ditut mixeri gorrira bidali nautenak. Madarikatuak, madarikatuak, bai, zuek eta zuen seme-alabak, eta zuen seme-alaben seme-alabak, zeruan hodeiren bat dagoen artean! Akabatu nauzuen zuen mezipretxuarekin, baina Jaizkibeleko magaletan zuhaitz bat botatzen duzuen bakoitzean, izango duzue zuekin nire madarikazioa! Hotzikarak ari naute akabatzen!, ari naiz nire...!

Begira Joanes, hor dago Koxme mozkorra. Lo dago, lo zerraldo. Edozein egunetan hilik agertuko zaigu, eta ondo merezia gainera, Jaungoikoak ez bait dio sekula barkatuko egin zuena!

KARLOX BARRENTSORO



ETIOPIA 1992

*Eras tierra, pasión, memoria, mito
culto en la danza y fiesta en el sustento,
pero ellos te imputaron el delito
de ser otro y ser libre como el viento.*

(Pedro Casaldaliga).

Hotzikarak jotzen nau begiak ortzeruntz zuzentzean; hotzikarak jotzen nau urrunetik datozen oihuetan murgildurik nere buruz sustrai katibuen kartzelari dakusatenean.

Hotzikarak jotzen nau; erraiak astintzen dizkidan arremgura eta negar jauzi bat zainetan behera, odola pozointzen, erraiak usteltzen, ezpata erdoilduaren poderioz isuritako odolak lur emankorra, bizitzaren sustrai, usteltzen duen gisan.

Hotzikarak jotzen nau, olatu inozenteen joan etorrian murgildurik, garai bateko ezpataren burniz osaturiko katea bai dakust, sustrai katibu eta ustelduen askapen irrintzia isildu nahiean.


Agian, egunen batean, mendebaldeko gizaki aurreratu eta zibilizalduaren bihotz handia erakusteko, Etiopiako anai basati eta zibilizaldugabekoengana joanen naiz Okzidenteko zoriontasunaz mintzatzer eta libreki eskeintzen diegun elkartrukaketa kulturalaz benefizia ahal ditezen.

Horregatik egunen batean, Etiopiar joango nintzateke. Bruselaseko bulego txukunetan erabiliko smoking eta zapata dotoreak etxean utzirik, diseinu berriko sport oinetako arinez, «peace and love» idazkia daukan kamiseta soinean, lurralde eder hartako ondar paradisiakoetan barneratuko nintzateke, eta bertakoei hitzegin: kaixo, hona zuen anai okzidentala, Europako ogia dakarkizuena; Tchernobilgo esne eta barazkiak oparitzen dizkizuena. Hona mendebaldearen eskerrona eta bihotz galanta. Bob Geldof en kontzertu humanitarioak dakarkizuet zeuon eskeletoa mugi dezazuen, eta Unicef-eko txartelak igortzen eguberrietako zuhaitzean eskegitzeko. Europear anaia nauzue; coca-cola, Michael Jacson eta saskibaloia zuen buruak zerbait probetxagarri bete ditzazuen.

Etiopiako ondar ederrean eseriko nintzateke eta hormonaz gizenduriko oilasko izter bat zurrupatu; Errioxako ardoaz guztiz bete eta zerri egitean, irrati eta telebista kate guztiak deituko nituzke «erupto» europear bat zuzenean eta stereon Etiopiako bazter guztietan ikus-entzun zezaten.

Etiopiaren erdian eleiz eskerga bat eraikiko nuke etiopiarren diru urriaz eta indar urriagoaz baliatuz, zerutik gertuago egon zitezen, zergatik diren pobre, zergatik diren goseti galdetzean erantzuna urrez apainduriko gurutze batean aurki zezaten.

Etiopian Legebiltzar eta Jaurlaritza bakar eta zentralzale bat ezarriko nuke dekretoz, etiopiarren gosea eta pobrezia administratua eta burokratizatua dela jakin zezaten, Aberriaren bedekapena daukatela jakin zezaten. Bertan Aita Saindua, Gorbachev eta Bushen argazki galantak zintzilikatu eta alderdi eta — ismo instituziozale guztiak deitu tolerantziaz, justiziaz, demokraziaz... eta — zia edo pitokrazia guztietan berba zegizaten. Horrela gure



Etiopia Bakar Handi eta Librean, Liberté-Egalité-Fraternité.

Etiopiako ondarretan etzango nintzake eta nere azal zuria koko esnez igurtzi; Etiopiako eguzki zoragarrian beltzaran bollito jarriko nintzake eta bidebatez, Christian Dioren bainu jantzien azken moda erakutsi.

Etiopiar emakume bat bere bular meharretatik heldu eta izter hezurren tartean nere barrabil europearrak igurtziko nizkioke, hamburgesa koipetsuz lodituriko nere txitxiak bere hezurren kontra zanpatuz, geuk, aberats eta pobreak, justu eta atsekabeak, europearrok eta etiopiarrok, plazerra elkarbanatu dezagun. Bederatzi hilabete beranduago, gose eta egarriak emakume hori gure Jaungoiko ahalguztidunaren erreinuetara oraindik eraman ez beirazko probeta batean sartu eta museo batetara bidaliko nuke, Etiopia eta Okzidente arteko elkartrukaketa kultural aberatsen lekuko.

Etiopiarra joango nintzateke, eta... munduak Etiopia «aurkitu» ko luke; honela, 2492. urtean Aurkikuntzaren V. Mendeurrena ospatu ahal izango genuke.

Jakin bezate etiopiarrek Mendebaldean beti urriak 12 dala.

Aitor Sarasola

UN DIA COMO HOY

Vivir es más que un derecho
es el deber de no claudicar.

(«Libertad» L.E. Aute)

Desperté

cuando la luz cegadora me quemaba.

Desperté

cuando el olor a cadaver quemado me ahogaba.

Y abrí los ojos

que aún cerrados

veían

observaban

venir la luz penetrante del horizonte.

No pude evitar una lágrima

aunque, por poder

solo podía

llorar

y

esperar, vigilante

en pie

con las cadenas al viento.

Y SOLO PODIA LLORAR

porque

una mañana no vi el horizonte

me sentía huérfano

de tí, huérfano;

no ví tus cabellos negos al son del viento

no ví tus ojitos negros en la clara mañana

danzar, libres, en mí..., para mí...

Y solo ví

un torrente de luz cegadora

luz racional

un torrente de palabrería

de... no se qué valores

valores de su bendita democracia,
valores, simplemente,
de gritos ahogados en la inmensidad de este vacío.
Me asustó tu ausencia
me asustó

no ver

la fresca negrura de tus cabellos deslizándose entre mis dedos
susurrando fugaces deseos entre mis labios
enredándose
uniéndose

libres...

Y tus ojos vigilantes
y la sombra

de tu cálido cuerpo

tu piel

al tacto de mis dedos.

Y tú... Oh, maldita, libertad!

Qué le voy a decir

al pájaro que surca mi nube

a aquel que se extraña de verme asido a cadenas y barrotes

al viento que todos los días lucha rebelde contra puertas y muros

a aquellos que solo hablan de tí

que solo saben de tí.

Qué les voy a decir...

¿que tus cabellos danzan al son de la luz cegadora?

¿que en tus ojitos ya no se ve mi sonrisa?

¿que tu lindo cuerpo descansa plácido en manos de otros?

Oh, maldita, libertad!

Una mañana me elegiste

para cantar tu canto

danzar tu danza

y me elegiste

para tomar de tí

para dar de tí.

Y SOLO PODIA ESPERAR, vigilante

en pie

con las cadenas al viento

frente a frente.

Y por más que el brillo de los barrotes al sol

cegaba mi esperanza,

sólo podía esperar

y ofrecer

mi grito silencioso

a aquellos que no entendían de cadenas

a aquellos que...

con sus gritos

con sus manos unidas

al viento libre

romperán

la oscura máscara de...

un día como hoy...

aquí...

PORQUE *tú, oh, libertad*

me elegiste

para tomar de tí

para dar de tí

sé que eres para mí

sé que vives en mí

mientras el humo de cadáveres quemados

se torna estrella


de roja seda

y negros cabellos

en el horizonte

que acecha el intranquilo dormir de nuestros carceleros.

Aitor Sarasola



BAZTERRE

Euskal Herriko mendiei, oraindik erre usaina zerien eta beltzez jantzitako alargunak ziruditen, biziaren alargun.

Urtearen azken egunak, azken hatsa. Kotxearen aurreko leihatilatik «Douanes Françaises» irakurri dut marroi, urdin eta berde ikustearekin batera. Aurrera jarraitu dut. Kostaldetik abiatu naiz, neketsuagoa dela eta beti bazterrera utzi izan dugun bide horretatik, praktikotasunak zenbat gauza ikusgarri ukatzen dizkigun pentsatu dut. Donibaneko kaia dut orain begi aurrean, kotxea gelditu eta bertako kale eta bazterrak ikusmiratu ditut. Elizan sartu naiz eta hau ezustea, hileta ospakizuna suertatu. Zerraldoaren inguruan, sei zazpibat lagun zeuden euskal hileta-abesti ezagun bat abestuz. Ni sartu naizenean haietariko batzuk ate aldera zuzendu dituzte begiak. Bakardadea ere han zegoen elizan eta izuturik kanpora egin dut.


Donibanetik bide bihurri bat hartuz Sara aldera abiatu naiz. «Col de Ste. Ignace» tik pasatzerakoan «Larun» go tontorrera igotzen den trentxo gogoratu dut eta bertan udaran igoaldi bat egin beharra ere. Saran bueltatxo batzu eman ondoren, euskal kulturen egundainoko garrantzia eduki duen eliza ikusi dut. Hango harrizko euskal izkribu zaharrak irakurri eta Ainhoara joatea erabaki dut.

Euskal bazter berde politak ikusi ditut, etxe txuri ederrez tartekaturik. Bizitzeko leku paregabea... Eta uste dut lo hartu nuela ametsaren ametsaz.

MUNDUTIK AT

*Kalean noalarik,
nere burua
beti tristerik
nabaritzen dut.
Gaur basoan izan naiz
eta dena aldatu da,
bizitzaz bete naiz,
bizitzeko gogoz,
zoriontasuna ere
sentitu dut.*

Lurrean eseri naiz
eta goruntz begiratu
dudanean, zerua kasik
ez zen ikusten.
Zuhaitz adaska berdeen
artetik argi zirrista
bat sartzen zen eta
goruntz begira jarraitu dut.
Txorien abestia nuen diskarik
ederrena, egiazkoena,
egile eskubiderik behar ez duena.
Zoriontasuna ere
sentitu dut.



Joseba Agirretxe

IRAETA

IRAETA, IRAETA,
harpa eta txalaparta.

IRLANDAko harmarritan
harpa zaigu ageri,
eta zeltarren hizkuntzan
bardo bat kantari.

IRAETA, IRAETA,
harpa eta txalaparta


EUSKAL HERRIko oletan
txalaparta da ari,
burdin dunbots artean
kanta hau durundari.

IRAETA, IRAETA,
harpa eta txalaparta


IRAETAko plazetan
zortzikook dantzari,
kartzelako burdinpetan
hamaika eusko gudari.

IRAETA, IRAETA,
harpa eta txalaparta

ANDREONE zahar honetan
eutsi batasunari,
eta kanta orok goraki
euskal askatasunari.



Patri Urkizu



Mark Legasse

Oharra:

Apirileko 27an, burutu zen Andrene kultur Etxean, Mark Legasseren «El zortziko de Iraeta para arpa y Txalaparta» izeneko liburuaren aurkezpena. Ekitaldi honetan Patri Urkizuk honako olerkia eskeini zion Legasseri.

BIDAUNEA BLAI


*Izerditan da irteten gizakia
amaren habi gozotik;
izerditan ditu ondorengo egun
guztiak igaroko,
izerditan, azken hatsa hartu arte.*

*Indartuz doan eguzkia bezalakoa da
gaztetan, dena oldar;
epelagotuz ditu ondorengo egun
guztiak emanen,
ilunabarrak ortzirat eraminik,
irentsiko duen arte.*

*Haizartean mendian behetti
arinki higitzen den arreka da
gaztetan;
galgaraziz arituko zaizkio ondorengo
egun guztiak.*

*itsaso mugagabeak
baretuko duen arte.*

Nahiz ahul jaio,
bizi egarritz,
tinko eta bortitz bilakatuko den
zuhaitza da
gaztetan;
udazkeneko haizeak hostoak erantzi
ahala,
idargabeagotuz joango dena,
denboraren nekeak itzaliko duen arte.
... izerdiz marraztutako bidaunea
iraganak du lehortuko, dio lehortuko.



«EHIZTARI»

1.- Zerbait esan nahi luke
gaur bertsolariak
pixka bat tentatuaz
gure ehiztariak.
Argi egiten badit
nere memoriak
esango dizkizutet
hoien historiak.


2.- Deitu gabe esnatzen
dirade goizian,
eskopetak hartuta
hasteko ehizian.
Gogor saiatzen dira
ahal duten klasian,
edozer gauza ona
besterik ezian.

3.- Mendiz mendi emanenez
makina bat pauso
harrapatu nahiean
oilagor ta uso
edo biligarroren
batzuak akaso,
besterik ez badago
enarai eraso.

4.- Oilagorrikan ezta
aparte usuak,
alperrikan emanak
sarritan pausuak.
Gure ehiztari jaunak
ez daude gozuak,
baina zer erru dute
enara gaixuak.

5.- Aipatu behar ditut
hoien pikardiak,
lotsaren arrastorik
ez dute erdiak.
Langak ireki eta
bialdu ardiak,
zapalduaz baratzak
eta belardiak.

6.- Hesiak zapalduta
alanbriak moztu,
ehiztariak behin ere
gauz onikan eztu.
Sagar, udare eta
tomatiak ostu.
Nola portatzen diran
ez leike sinistu.



7.- Sarritan joan gabe
oso urrutira,
harrituta egoten naiz
hoieri begira.
Txori txiki danari
tira eta tira,
txantxangorriaz ere
kupitzen ez dira.

8.- Ez errespetatzeko
txorien bizitza,
hoien kontzientzia
da gauza murrizta,
guztiangandik berdin
ez nintzake mintza,
baina hamarretik sei
horrela dabilta.

9.- Errespeto gutxiko
kristauan modura,
hurbildutzen zaizkitzu
etxe ingurura.
Lotsa gutxikin tira
nahi duten lekura,
perdigoiak sartuaz
leihotik barrura.

10.- Inor aspertu gabe
hasitako lanez,
ixildutzea hobe
nik ustie dedanez.
Amaitutzera noa
denari esanez,
errespeto pixka bat
izan gutxienez.

MARTZELINO
LEGORBURU
«ARGIÑANE»

OGI GOGORRARI HAGIN ZORROTZAK

Doinua: Zortziko Zaharra Hegoatik Iparrera...

- 1.- *Ogi gogor asko dago, zoritxarrez Euskadin
Ogi gogor bihurtu da, horrenbeste euskal min.
Hagintzarrak zorroztea, komeniko da arin
Oraindik jan daitekena, erabat gal ez dadin.*
- 2.- *—Ogi hutsez ez da bizi, gizona— dion hura.
Behin da berriz etortzen zait, gai honekin burura.
Basamortu batek berez, dakar gogora ura.
Gizakiak horrelaxe, berea du kultura.*
- 3.- *Irauteko zailtasunez, bizi zaigu euskera,
Euskaldunok saia behar, hizkuntzari eustera.
Ogi gogor honek bide, bat du nire uster.
Dakigunok erabili, besteek ikastera!!!*
- 4.- *Hizkuntzaren arazoak, badauka hainbat traba.
Herri baten arimarik, ezin albora laga.
Egun senti bihur dadin, halako batez gaba...
Denok gogor joka behar, hau gertatuko bada.*
- 5.- *Ekologi arazoa, ez da ogi biguna.
Zientifiko mundutarrak, kezkatu dizkiguna.
Kutsaduran erreinoa, nagusitu zaiguna,
Apenas den atsegina, gure etorkizuna.*
- 6.- *Hainbat lagun lanik gabe, ez dute lan erreza.
Non aurkitu bizitzeko, behar duten babesa?
Mixeria gainditutzen, izaten da nekeza.
Ogi gogor gogorrena, ogi gogorrik eza.*
- 7.- *Krisiaren aitzakia, oso garbi ez dago.
Ez al gaude tranpa eta, gezurraren esklabo.
Behartsuak pobretutzen, ari garela nago.
Aberatsak berriz geroz, eta aberatsago.*
- 8.- *Pakearen hitza ere, ogi gogorra dugu.
Hilerriko pakerikan, nork du hemen helburu?
Askatasun ta justiziaz, nahi genuke seguru.
Hori ezin lortuz gabiltz, gogor gudu ta gudu.*
- 9.- *Indartsuek beren alde, antolatu legeak.
Hortarako ohi ditugu, bizkor eta trebeak.
Loturazko edukiak, nahiz itxura libreak.
Bost axola gizaki ta, herri eskubideak.*
- 10.- *Hainbat ogi gogorrekin, nor daiteke gaur poztu?
Baina gogo beroz jarrai, ez etsipenez hoztu.
Arantzezko baratz hauxe, behingoz dadin larrostu.
Andre gizon neska mutil, hortz haginak zorrotzu.*

Xanti Zabala
«LEXO»

